

400 pezeta.  
15 libera

# hik hasi

euskal  
heziketarako  
aldizkaria

24

1998ko URTARRILA

Gabon inguruko  
ospakizunak  
gaia

Joxe Azurmendi  
elkarrizketa

Kosmos gela  
Planetarium ibiltaria  
Esperientzia

Eskoriatzako  
Museo-Eskola  
Gehigarria

Argitaratzailea:

## XANGORIN

Zirkuito Ibilbidea,  
2. Pabilioia. 20.160  
LASARTE-ORIA  
GIPUZKOA.

Tel: 943/ 37.15.45  
Fax: 943/ 36.10.48

Lege Gordailua: SS-1001/95  
ISSN: 1135-4690

Koordinatzailea:  
Jose Mari Auzmendi

Erredakzio burua:  
Ainhoa Azpiroz

Erredakzio batzordea:  
Itziar Barriola, Mikel Estonba,  
Arantxa Goiburu,  
Mari Karmen Irastorza,  
Kristina Mardaraz,  
Josi Oiarbide, Juanjo Otaño,  
Fito Rodriguez, Maite Saenz,  
Xabier Sarasua eta  
Arantxa Urbe.

Aholkulariak:  
Imanol Agirre, Begoña Bilbao,  
Mariam Bilbatua, Xabier Isasi,  
Irene Lopez-Goñi,  
Izaskun Madariaga,  
Kepa Perez Urraza,  
Lore Erriondo,  
Lontxo Oihartzabal eta  
Pruden Sudupe.

Diseinua:  
Zart

Maketazioa, fotomekanika:  
Xangorin.

Inprimategia:  
AN<sup>t</sup>ZA S.A.L.

Azaleko argazkia:  
Ikor Kotz

Hezkuntza, Unibertsitate eta  
Ikerketa Sailak Onetsia  
1.997/XII/6

Kopurua: 3.500 ale

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

GABON INGURUKO  
OSPAKIZUNAK BERRESKURATUZ

14 elkarrizketa

Joxe Azurmendi

Balioak gaur egun

19 gehigarria

Eskoriatzako Museo-Eskola

25 Ekarpena

Informatika: Azken mamu gorriari, adeitasunez

28 Ekarpena

Etxerakolanak

30 Esperientzia

Kosmos gela

33 Berriak

37 Nazioartea

Norvegia

39 Praktikatzen

Mural kromatikoa (I)

hik hasi ez ditu bere gain hartzen  
laguntzaileek plazaratutako iritziak  
ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

COUNCIL OF EUROPE-  
CONSEIL DE L'EUROPE



Strasbourg  
1996ko maiatzaren 22

Aldizkari honek "aipamen berezia" jaso du Europako Kontseiluaren "lurraldeen arteko lankidetzarako sustapena" programaren barruan.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA  
Kazeta, Argitaerak eta Informatika Nagusiak

PRESIDENCIA  
Secretaría General de Acción Exterior



fundazioa  
fundación

# Txirula jotzeko ikasleen liburua



66 abesti  
ezagunak  
pentagrama  
eta abestien  
hitzez osatua.  
60 euskal  
abesti,  
6 abesti  
unibertsalak,  
112 orrialde.

**1.500 pezeta/60 libera**

10 ale baino gehiago  
eskatuz gero  
beherapen handiak


Norbanako harpidedunek **1.000 pezeta/40 libera**

Euskara eta Euskal Heziketarekiko erasoak areagotu diren honetan euskararen aldeko jarrerak inoiz baino biziago

URTARRILA

e d i t o

r i a i a



**zer urtea!**

Hamaikatxo gauza entzun eta ikusteko jaiok omen gara eta aurten goa aukeretan oparoa izan denik ezin uka.

Euskara eta Euskal Heziketaren etsaiek bere amorrazioa erakutsi dute behin eta berriro erakunde eta estamentu desberdinetatik. Erreparorik gabe, bere mesprezua batean eta bestean zabalduz aritu dira. Olentzero ere ez da erasoetatik salbu geratu.

Asko gara haur euskaldunek Olentzero itxaroten duten ilusio berarekin lanean aritzen garenak. egunez egun. Erasoak eraso, gure haurren zoriontasuna lausotzea lortu ez duten bezala, euskal gizarteak oro har geroz eta ozengoa adierazi du euskara eta bere zutabe garrantzitsuenetakoa den Euskal Heziketaren aldeko konpromezua.

Gure zilberrera begira, aurten egindako ahaleginek jaso duten emaitza Euskal Hezkuntza esparruarekin dugun konpromezua indarberritzeko erabili dugu.

Hik Hasiren sorreran buruan

generabiltzan helburuak gauzatu doaz: Euskal Hezkuntza Erki-degoa osatzen dugunon tresna eta zerbitzu izatea besteen artean. Eta bide onean goazenaren lekuko dira gure ingurura bilduz doazen lagun ugariak.

Ahaleginak egiten jarraitzen dugu Administrazioa ere gure ingurura biltzeko. Eginahalak eginda ere ezin dugu lortu.

Oraindik gogoan dugu Oliveriren Sailaren itzalean sortu zen beste aldizkari hura, ESKOLA. Dirudienez, aldizkariarekin bat desagertu ziren alor honetan eskaini zitezkeen dirulaguntza eta subentzioetarako azpiegitura bideak. Hik Hasiren eskakizuna ESKOLA aldizkariak zuen aurrekontuaren laurdena iristen ez den arren.

Hik Hasi asmaoa zenetik, Hezkuntza Saileko arduradun desberdinen onespina eta hitz onak jaso zituen: inoiz gauzatu ez den eskaintza egitera iritsi zirelarik.

Badirudi azkenik gure eskabi-deen oihartzuna nonbaitera hel zitekeela. Orain arte bezala, eskua eta bidea zabalik dauzkagu elkar lanerako. Besteetan gertatu den antzera gure itxaropena zapuzturik gertatuko ez delakoan gaude.

**Urte berri on guztiontzat!**

*Hitzak eta eskainitakoak edukiz betetzea, horra hor gure eskaria*



# Urte amaierako gazi-gofoak: Humanitateen planaren birplanteaketa eta “esperantza” berritua

# k r o n



## Badatoz aldaketak

Ezkutuan eta poliki bada ere, Humanitateen inguruko dekretu proposamena aldatzeko bidean da. Abenduaren 16an Kongresuko alderdi guztiek Aguirreren proposamenaren aurka bozkatu zuten, bere alderdiak izan ezik. 180 botu 151ren aurka, hori izan zen emaitza. Hala ere, Aznarrek ez du aldatzeko eta amore emateko keinurik agertu. Nahiz eta botaketak emaitza hori eman, orain arteko planteamenduekin jarraitzeko asmoa agertu du. Egoera honek ez omen du bere kideekiko harremana aldatuko beste arloetan ere.

Bestelakoa izan da Aguirreren jarrera, eta hezkuntza eskuduntza duten erkide guztietako ordezkariekin bildu da. EAeko, Kataluniako, Kanarietako, Galiziako, Andaluziako eta Balearretako Gobernuetako hezkuntza sailburuekin akordio batera eltzeko asmoa du.

Testua aldatzeko prest dago, baina beti ere kontsentsua lortzen bada. Bere asmoa ez omen da izan dekretua inposatzea eta elkarte autonomoen eta alderdi guztien aportazioetara irekita dagoela berretsi du.

Kongresuko botaketaren emaitza Gobernuarentzat ikasgai bat izan dela diote komunitate autonomoetako ordezkariak. Aguirreri hausnartzeko eta hurrengoan beste modu batera jokatzeko ikasteko balioko omen dio. Hemendik aurrera elkarrizketa bide berri bat irekitzeko gomendatzen diote. Ardanza lehendakariak ere ontzat hartu du Kongresuko botaketa. Eusko Jaurlaritza hasieratik dekretu proposamenaren aurka egon dela aipatu zuen, bai eduki aldetik eta baita forma aldetik.

Hala ere, Humanitateen dekretu proposamena ez da bertan behera geldituko. Aguirrek argi azaldu du aurrera egingo duela. Proiektua bertan behera uztea axolagabekeria izango omen litzateke. Gainera, aldaketaren beharra garbi ikusten du Hezkuntza ministroak, bere ustetan DBHko Hizkuntza, Literatura, Geografia eta Historian ez delako behar adina ikasten.

Dena dela, orain arteko planteamendu aldatu egin beharko du komunitate autonomoetako ordezkariekin kontsentsua lortuz eta denen gustuko plana osatuz. Elkarrizketak bide berria irekitzen du, aldaketak sartzeko aukera. Ea gure agintariek zuzen eta egoki jokatzeko behar diren gauzak behar diren bezala jartzeko.

## Bitarteko irakasleen egoera

Momentu honetan EAeko Hezkuntza sailak 971 bitarteko irakasle ditu. Hauen egoera 1995. urteko akordio batekin erregulatzen zen 1998ko abuztua arte. Orain berriro elkartu dira egoera aztertzeko. Administrazioaren asmoa bitarteko irakasleak 2000. urtera arte mantentzea da. ELA, LAB eta EILAS sindikatuarekin akordio batera iritsi beharko du hori betetzeko. Bien bitartean, sindikatuak bitartekotasun egoera hori Administrazioarentzat “zerbitzu minimo batzuk” bete dituztenengana zabaltzea eskatzen dute. Baita funtzionarioen lan baldintza berdina edukitzea ere. Horrekin batera euskarazko perfila ere eskatzen da bitartekotasun egoeratik egonkortasunera pasatzeko. Oraingoz ezer garbirik erabaki ez bada ere, bilerak egiten hasiak dira.

“Ezezko jarrerak, erresistentziazkoak dira pertsona nor egiten dutenak”.  
(ALAIN TOURAINE)

# ik a



## 1998. urteari begira

Ikasturtea hasia egonagatik, urte berriko planteamenduak agertuz doaz. Nafarroan 1998ko aurrekontuek zer esana sortu dute eta eskaerak, batez ere. Sozialistek Hezkuntzan 1.500 milioi gehiago gastatzeko proposamena egin dute. Beste gauzen artean sare pribatu eta publikoaren arteko oreka ere eskatzen dute.

Horretan ados dago FCPF guraso elkartearekin. Guraso Federakunde Katolikoak irakaskuntza pribatu kontzertatuaren esparruan eskaera batzuk egin dizkio

Gobernuari. Ezinbestekotzat jotzen du 100 irakasle berri kontratatzea, Nafarroako Gobernuak ikastetxeak LOGSEra egokitzeko egin behar diren lanak laguntzea eta ikastetxeetako langile guztien soldatak %3,1 igotzea. FCPFrenkin batera irakaskuntza pribatu kontzertatuko beste erakunde eta sindikatuek ere bat egin dute eskari hauekin. Azken erabakiak Gobernuak hartu beharko ditu.

Irakaskuntza Ertainean ere berrikuntzak datoz. Datorren ikasturtean Lanbide Heziketako Heziketa Ziklo berriak ezarriko direla iragarri du Hezkuntza departamentuak. 33 gehiago izanen dira eta horien artean Ingu-rugiroari lotutakoa delarik berriena. Batxilergoan ere 32 ikastetxe publikok hasik dute esperientzia berria.

Dena dela, oraindik behin-behineko mapa egin da. Sindikatu, ikastetxe eta elkarteekin hitz egitea falta da eta ikasleen eskaria ikustea ere bai. Hala ere, orain arte eman diren datuak sare publikora mugatzen dira, sare pribatuari buruzko informazioz ez da zabaldu.

## Urteko azken eskakizunak



Iparraldean urte osoan zehar jardun dira euskararen aldeko irakaskuntza zabaltzeko pausoak emanez. Urte bukaera eta hasiera ere ildo horrek markatzen ditu. Urru-ako gurasoek Udalaren laguntza lortu dute. Herri lurrak behar zituzten ikastolaren eraikin berria egiteko. Herri kontseiluak lur sail bat eskaintzea erabaki du, eta horrez gain dirulaguntzak ere emango dizkio.

Eraikitzeko baimena lortu ondoren eta gestio guztiak martxan jarri ostean, bospasei hilabetetan ikastola berria eraikitzea espero dute gurasoek. Datorren ikasturtearen sartzeari bertan egiteko moduan egotea espero dute.

1993an sortu zen Urru-ako ikastola eta gaur egun 24 haur dira bertara joaten direnak. Kopurua gorantz doa eta horregatik uste dute gurasoek irtenbide egokiena eraikin berria egitea dela.

Uztaritzen, berriz, oraindik lehen pausoak ematen hasi dira, baina gogoz eta aurrera jarraitzeko asmoz. Urkila elkarteak Uztaritzeko auzapezarekin mintzatu nahian dabil ikastola berri bat egiteko. Ea Urru-akoek bezain zorte ona duten!

# GAIA

# Gabon inguruko ospak



Gurutze Ezkurdia  
Begoña Bilbao  
EHUko irakasleak

**G**abon sasoi gaude,  
Gabonetan gaude!  
Erosketak, kaleak  
eta dendak jendez beterik,  
koloreak, apaingarriak,  
argiak, zorionak. Oporrak  
eskoletan, janari  
prestaketak etxeetan,  
opariak erostea eta  
ematea. Gabon-gaua,  
Eguberria, Gabon-zahar,  
Urtebarri, Urtats,  
Olentzaro, Erregeak eta  
Papa Noel.

Eros ezazu! Hau behar duzu, beste hori ere bai, baita hura ere...! Kontsumitu, erosi, dirua gastatu, jateko garestiak, ez dakit zenbat mila pezeta gastatu behar dituzun arraindegian, supermerkatuan ere bai. Eros iezaiozu zerbait amari, beste zeozer aitari. Amari ere erosi behar, ahizpari, nebari... Eurek ere erosiko dizute zeuri eta zuk ez? Eros ezazu!

*Hugo Woman: bizitza joan-etorria da, ez zaitez galdu.*

*Don't imitate, innovate.*

*Codorniurekin zoriontsua izango zara!*

Erosi! Erosi! Guraso bazara ez galdu aukera! Azkenengo jostailu eta traman-kulu salgai dituzu eta. Ez utzi erosi barik. Zure seme-alabek moda-modakoak diren horiek behar dituzte-eta.

*Ikasteko, maitatzeko, jolasteko,  
Master Qui Que!*

Berez urtean zehar kontsumismoan ezarririk bizi bagara ere, Eguberrietako sasoi pertsona lez dauzkagun sentimendurik eder eta duinenak, marketig-

# izunak berreskuratuz

naren bidez, salerosketako objektu izatera desbideratzen dizkigute, ondorioz elkartasuna erosketa bilakatuz eta nor-tasuna bezero izatea bihurtuz.

Hori dira funtsean, gaur egunean, gabonak. Horrela bizi behar dituzu, bestela "normalitate" kanpo geratzen zara eta. Telebistak, propaganda, dendetako panfletoak, kaleak, erakuslehiak, denak bultzatzen gaitu horrela bizitzera. Horiek guztiak dira Gabonak, Gabon sasoi orohar, baina gauza gehiago ere bai. Euskal Herrian egon dira, eta leku batzutan orainarte iraun dute sasoi honetako ospakizun desberdinak. Gehienontzako Olentzaro izan arren ezagunena, abenduan zehar eta urtarrean burutzen direnak ere erabili eta irakasteko modukoak direla uste dugu.

Aspaldidanik, eguzkiak, bere ibilbide geldiezinean, ortzian tokirik gorena eta behearena hartzen duen ueña edo sasoi, solstizio erdal hitzaren bidez ezagutzen da. Euskal Herrian urte sasoi bi ezberdin dira beti, uda eta negua, eta urtaro hauen hasera ospatu egiten dugu zenbait ospakizunen bidez, gehienetan suaren inguruko erritualez: hortxe ditugu San Juanak edo Gabon-Gaba eta Gabon-Zaharreko suak adibidez. Neguko solstizioari dagozkion jaiak eta urtearen amaierari zein urte berriaren hasierari dagozkionak gaur egun batera ospatzen baditugu ere, ez da urtearen hasiera beti abenduan izan. Egun darabilgun egutegia Gregorio XIII. Aita Sainduaren sasoiaren ezarri zen 1582. Urtean. Baina egutegia konbentzionala da. Esaterako urtea urtarrearen lehenean hasten bada ere, Erdiaroko Nafarroan urtea eguberriz hasten omen zen, hau da, Abenduaren 25ean; Martxoaren 25ean beste kronika batzuen esanetan. Eta Iparraldean, Irailari Buruila deitzeak haserako ilara zela adierazten omen du Caro Barojaren iri-

tziz.

Beste alde batetik, oso gogoan hartu beharrekoa dugu, aspaldidaniko festa eta ospakizunak, -euretariko batzuk Kristo aurreko siniskeretan oinarrituta egonik ere-, kristautasunak bereganatu egin dituela eta gaur egun, guztiz kristaututa ezagutzen ditugula, adibidez solstizioaren inguruko festak, bai Gabonak eta baita San Juanak ere.

## Gabon sasoi- ospakizun batzuk

Gizarte modernoaren bilakaeran, mende honetako tradizioen artean bi indartzen dira bereziki: Frantzia zabalduko eta indartuko den Papa Noel-ena eta Espainian Erregeena.

Frantzia indartzen den eredu Ipar Europako tradizioan dago oinarritua, eta, San Nikolas Barikoa hartzen du abiapuntutzat: San Nikolas Barikoa, Liziako Mirako apezpikua (IV.m.). Bere gurtza Ekialdean eta Europan oso ospetsua da, batez ere Italian, Barin haren erlikiak daudelako. Nizeako kontzilioan parte hartu bide zuen (325). Hau beste batzuen artean, gazteen patroia dugu. Tradizioak Gabon-gauean umeei opariak ematera datorrela dio. Erreforma garaitik aurrera Alemanian eta beste toki batzuetan Papa Noel deituko zaio. Hemendik dator Ipar Euskal Herrian hedatzen den ohitura.

Hego Euskal Herrian hedatzen dena aldiz, Espainian indartzen den tradizioan oinarritzen da. Hau, Biblian kontatzen den pasarte erreferentziaz hartuz Jesus umea jaio berri dagoela Ekialdetik etorritako hiru Magoak hartzen ditu abiapuntutzat. Hauek ume Jesusi opariak ekarri zizkioten bezala haurrei, lo dauden bitartean, opariak uzten dizkiete. Horretarako haurrak onak izan behar dute eta zapatatxua edo galtzerditxoa utzi behar dute leihoan edo balkoian oparia jasotzeko. Onak ez

badira izan ikatza jasotzen dute.

Urte batzuetatik hona, Europan zehar ohikoa den Gabon-arbola zabalduko da gure artean. Usadio berria bada ere, hainbat etxetan izai bat jartzen da guztiz apainguririk: koloretako bola eta argitxoak, gozokiak, polboroiak, turroi zatiak eta halakoak. Eta bertantxe uzten ditu Olentzerok opariak.

Bi tradizio hauek zabalduko eta indartu egingo dira eta ofizialki bultzatu ere, batez ere, mende honetan komunikabideen hedapenarekin eta telebista eta ikustentzutekoak erabilera masibo hartzen dutenetik. Honek bideratzen du, neurri batean, kultur eredu amankomunak indartzea.

Bien bitartean, beste zenbait euskal tradizio bizi da, herri eta eskualde ezberdinetan, tradizio lokal eta zahar gisa eta hedapen murriztean. Dena den, baserri eta herri inguruetan tradizio lokal edo herrikoa mantendu egin da. Hirurogeitahamargarren hamarkadan gure Herrian, beste toki batzuetan bezala aldaketa nabariak gertatzen hasten dira: besteak beste, eta Hego Euskal Herriari dagokion neurrian frankismoaren azken urteak bizi dira, berbizkunde kulturala eta politikoa bizi-bizia da, zenbait giza mugimendu eta kultur-talde ugari sortzen da. Herri eta hirietako auzoetan euskarazko eskolak, ikastolak, euskal jaiak antolatzen dira eta mugimendu guzti honetan "euskal" horren oinarrian dagoena bilatzeko premia agertzen da.

Testuinguru honetan, Gabonetako festetan Gipuzkoako ekialdean eta Nafarroako ipar-mendebaldean ospatzen den errituala nagusitzen da Euskal Herriko hiri eta auzoetan: hau da, Olentzaro kantatzera irtetzea Gabon-gauean arratsean.

Ondorioz, eta ikastoletan eredu euskaldun bat behar den neurrian, Olentzaro nagusituko da Gabonetako eredu



amankomun bezala. Hemen azpimarratu behar da guraso gazteen kontzientziazioak izan zuen eragina: euskal eskola sortzerakoan zabalduen den giroan, euskal nortasuna adierazten zuen pertsonaia bilatu eta zabalduz. Gaur egun, Euskal Herri osoko haurrek ezagutzen duten pertsonaia dugu. Berau da opariak eta jostailuak ekartzen dituen gure Herrian, Europako San Nikolas edo Papa Noelen antzera. Dena den hauekin batera bizi da oraindik ere Ipar Euskal Herrian. Hego Euskal Herrian berriz, Erregeak beste egun batean ospatzen direnez, etxe askotan bi egunetan jasotzen dira opariak: lehenengo Olentzero egunean eta gero, beharbada, apalago baina baita Errege Egunean ere.

Baina, gure gizarteko eredu amankomuntzat Olentzero hartu bada ere, ohitura bera apur bat desitxuratuta aurkitzen dugu, kontsumo pertsonalean erabilia eta festa honek, beste askok bezala, duen zentzu kolektiboa galduta edo. Euskal gizartean gizarte kontsumistari uko egin beharrean, erabili egiten da pertsonaia eta tradizioa kontsumo gizartera egokitu.

Euskal Herriko bazterretako tradizioak taldean ospatzen dira. Eta, eskari ibiltzea da asko eta askoren lana, gero-rago bildutakoaren inguruan lagun arteko otordua ospatzeko. Horra hor esaterako, mendebaldeko lurraldean Gabon-gauean etxerik-etxe edo kalerik-kale Gabon-kantak kantatzen ibiltzearen ohitura, ekialdean Olentzero kantatzera irtetzen den bezala, edo Urte-berri egunean haurrak etxerik-etxe ibiltzea aginaldoa eskatuz edo Errege egunean Apalazio kantatzera joanaz... Beharbada, honelako ospakizunak berreskuratuz, auzoan, herrian egin izan diren tradizioen inguruan bilduz, modu bat izan dezakegu Gabon sasoiari izan duen ospakizun kolektiborentzat zentzua emateko, gizarte kontsumista honen aurrean, non kontsumo pertsonala eta kolektiboa bultzatzen den soilik.

### Beste aukera batzuk

Egokia izango litzatekeela uste dugu tradizioak izan duen zentzu kolektiboa berreskuratzea. Honetan ere badute giza-taldeek, auzo mugimenduek,

**“ Olentzero nagusitu da Gabonetako eredu amankomun bezala. Hemen guraso gazteen kontzientziazioak izan zuen eragina azpimarratu behar da: euskal eskola sortzerakoan zabalduen den giroan, euskal nortasuna adierazten zuen pertsonaia bilatu eta zabalduz ”**

eskolak egin beharra: zenbait tradizio bultzatu eta berreskuratu eta Olentzero rekin batera sasoioko beste guztiak landu. Hara hor, besteak beste, San Nikolas, Gabon kantak etxerik etxe kantetan ibili, A palazio, Suak piztearen eta ura biltzearen tradizioak, solstizioaren zentzua, ziklo naturalen garrantzia...

### Samikolas (San Nikolas)

Arestian aipatu dugun San Nikolas haur eta gazteen zaindaria dugu eta hortik, San Nikolas egunean eskola umeen eguna ospatzea. Gaur egun, nahiko galduta aurkitzen den festa da hau. Abenduaren seian. Egun hau eskola umeen eguna zen, besteak beste, eta eskola umeen artean ospatzen zen. Aurreko egunetan maisuak edo maisutak umeen artean ondoen portatu omen zena aukeratu egiten zuen errege, apezpiku edo autoritate bezala. Eta honi laguntzen beste ume batzuk, hauen egin beharra apezpikuaren laguntzaile izatea zen. Berez jatorriz autoritate, San Nikolas apezpikuxoa dugu, Iñusenteen apezpikuxoa legez ere ezagutzen dena. San Nikolas egunean aukeratutakoa apezpikuz jantzi eta lehen orduan mezetara joaten ziren, maisuarekin. Gero herrian kalerik-kale eta etxerik-etxe joaten ziren eskean zera kantatuz:

*San Nicolas coronero  
arzobispo Mariandres  
echame la castaña  
un, dos, tres.*

Horrelako koplak zenbait lekutan ezagutzen dira, denak antzerakoak eta denak ezberdinak. Bildutakoagaz bazkaria egiten zuten.

Arrasaten esaterako, oraindik ere, iluntzean, eskola umeak herriko plazan batzen dira eta koplak kantatzen duten bitartean herriko etxetik karameloa botatzen dizkiete. Jai hau oso ospatu izan da zenbait herritan: Kanpetzu, Arrasate, Agurain...

Lekuonak<sup>1</sup> bildutakoari jarraituz, Oiartzunen egun honetan haurrak kantatzen ibiltzen ziren eskuan makila hartuta eta bizkarrean zorrotxo bat. Entzueran etxeoandreek fruituak ematen

<sup>1</sup>Arregi, G.; Erkoreka, A. eta batzuk (1985): "Juegos infantiles en nuestra sociedad tradicional. Umeen jokoak gure gizartean" in Euskal Herria. Historia eta Gizartea, 1, 504 or.

omen zizkien sari bezala: intxaurrek, gaztainak, sagarrak, mispilak, eta abar. Zera kantatzen zuten:

*Samikolas tikiya  
gure ganbara aziya:  
- Gure ganbaran zer dago?  
Andre Juan Maria.  
Abe, Abe Maria  
Dios te salve, bakalo jale  
Bost eta sei amaika:  
- Txorixorikan ezpaldin bada  
igual dela lukainka.*

Baina, Euskal Herri osoan zehar ere kantatzen dira ezer ematen ez duten etxe edo etxeoandre zekenen kontrako koplak:

*Or goyan otia  
dena lorez betia:  
etxi ontako etxeo andriak  
atorra kakaz betia.*

### **Gabon eta eguberri**

Gabonetako ospakizunak Abenduaren 24aren inguruan hasiko dira. *Gabon* deitzen zaio gau horri, Nochebuenaren itzulpena. Eta hurrengo eguna, *Eguberri*, egun laburrenak bukatu eta argitasun aldia hasten den momentua adierazten omen du. Bizkaian Natibitate lez ezagutzen dugu. Guztiz kristauturik aurkitzen ditugun ospakizun haue-tan maiharen inguruan biltzea dugu ohiturarik esanguratsuen. Horretarako jantropeak prestatu egiten dira. Horra hor hain famatu egin diren gabon aurreko merkatuak, Santo Tomas Feriak, hiribilduetan egiten direnak: Bilbon, Tolosan, Donostian...

Euskal Herriko Mendebaldean abenduaren 24ean, Gabon egunez, iluntze aldera, ume-aldrak kantuka eta sari eske irteten dira leku batzuetan gabon kantak abestuz. Bizkaiko eskualde batzuetan gabon aurreko kantuoari Marijesiak deitzen diete eta nagusi zein umeek kantatzen dituzte Gabon aurreko bederatzia egunetan, goizaldean. Hona hemen Juan Gorostiagak<sup>2</sup> jasoriko aldakia:

*Abenduko santu onetan  
Kristo'ren jaiotzian  
pozaren aundiaz  
guztiok poz gaitian.*

<sup>2</sup>Ibidem.

<sup>3</sup>Caro baroja, J. (1980): Sobre la religión y el calendario del pueblo vasco. Txertoa.

<sup>4</sup>Gehiago jakiteko ikus aipaturiko Caro Barojaren lana.



*- Maria Jose,  
Jose Maria  
Maria Jose.  
Mundu guztia dago  
gaur pozez beterik  
Semia jaiola dalako  
orban bagarik.  
Bai Belenen  
eta bart Belenen  
jaiola da Jesus Nazaren.*

Dena den, Gabonak ez dira bakarrik Jesusen Jaiotzaren inguruko ospakizunak. Zenbait erritu eta festa solstizioa ospatzeko egiten da gero kristautasunak bere kutsua erantsi badie ere. Eguzkiaren inguruan dauden siniskerak oso hedatuak dira Euskal Herrian eta euretariko bat Neguko aroa edo solstizioa ospatzeko egiten omen dira.

Eguberri, egu eta berritik datorren berbea, Gabonak izendatzeko erabili izan ohi dena, egun berri adierazten omen du<sup>3</sup>. Hau Argi berri edo Eguzki berritik omen dator, ordutik aurrera eguzkiak gora egiten baitu ortzian. Etimologikokinegukosolstizioaren hurrengoko eguna da aipaturikoa. Erritualak bezperaz hasten dira ospatzen. Gau honi Gabon, Gau-on bezala ezagutzen da. Baina beste toki batzuetan, esaterako Oiartzunen Olentzero gaba bezala, Saran Suilaro-atsa eta Uhart-Mixen, Xiularo<sup>4</sup>.

Beste era bateko ohiturak etxean bertan gordetzen dira. Hara nora, Gabongueuz enbor eder bat jartzen da erretzen sutean izen hauen bidez ezagutzen dena: Gabonzuzia Zegaman, Gabonsubil Trespentesen, Gabon-mukur Bedian, GabonSubil Abadinon, Antzuo-

lan, Subilaro Egur Aezkoan, Suklaroegur Saraitzun, Sukubela Liginagan, Porrondoko Agurainen, besteak beste. Antzina su horretan prestatzen zen gabon-gaueko afaria eta egun horretako jaki bereziak. Gabonzuzi hau aparteko enborra dugu. Enbor ederra aukeratzen da eta gau guztian sua amatatu barik mantentzea da ohitua toki batzuetan. Gero gelditzen den txingerra eta errautsak gorde egiten dira zenbait lekutan. Askok uste du enbor honek aparteko ahalmenak dituela.

Urtean zehar animaliren bat gaixotuz gero, korta erdian jarri enborraren zatitxo eta piztu egiten da, izpiritu txarrik uxatzeko. Laudion eta Agurainen esaterako Gabonzaharrera arte mantentzen da sutondoan. Olaetan pago enborra jartzen dute urtearen azken egunean eta harekin batera, aurreko urtekoaren azken mokorra erretzen da. Elduaienen oso su bizia egiten da eta umei esaten zaie Olentzero igitaiaz tximiniatik etxean bizi diren guztiak hiltzera sar ez dadin egiten dela. Agurainen ekaitzak uxatzeko pizten omen zuten ekaitza zegoenean. Ibarurin errautsak gorde eta San Esteban egunean soloetatik zabaltzen dituzte horrela piztiak hilgo direla pentsatuz.

Mendebaldeko beste ohitura zabaldua zera da: Gabon gabeko afaria aste-ko dagoela Gabon-ogia deritzona bedeinkatu egiten da. Bizkaiko eta Gipuzkoako hainbat herritan Etxeko jaunak bedeinkatuko du ogia, azpiko aldean kurutze bat markatzen du aitzoz eta zati bat kendu. Zati hori gorde egiten da urte guztirako. Ogi honek aparteko propietateak dituela pentsatzen

da: alde batetik ez da zimeltzen. Bestetik egunen baten animaliren bat gaixotuz gero, ogi puxka horren zatia hartu eta eman egiten zaio osatzeko. Itxaso ekaitzaren aurretik edo ibaia gainezka egin aurretik botaz gero erremedioa omen da.

Gabon eguna Bijili eguna izanez, ezin zen okelik edo haragirik jan. Horregatik gabon gabeko menua bijili egunekoa da: olio azak, bakailaoa edo bisigua; beste batzuk, angulak. Baina beti arraina. Gero, intxaursaltza. Ondoren mezetara joateko jantzi berriren bat jarri “deabruari begiren kentzeko” Larraunen esaten duten bezala. Konjuro hauek Baztanen, Garazin eta Barkoxen San Juan eguneko sorginkeria edo konjuroarekin zerikusirik edukiko luke, kasu honetan sorginari kendu nahi zaiolarik begia.

### Olentzaro

Toki ezberdinetan izen ezberdinek izendatzen dute tradizio bera<sup>5</sup>: Olentzaro Andoainen, Olentzaro Orexan, Lesakan eta Arakilen; Olentzero Beran, Irunen, Oiartzunen eta Donostian; Orantzaro Berastegin eta Larraunen; tradizio hau Gipuzkoako Beterrin eta Nafaroako Bidasoa inguruan agertzen da. Xubilaro enborraren aldia deitzen zaio Arakilen; Suilaro Saran, Suklaro Saraitzun; Galerre Alegian eta Agurainen; Putierre Amaritan. Izen honen esanahiaren gainean eztabaida aurkitzen badugu ere, Barandiaranen esanetan izen hauek, bai panpinenak bai Gabon-gaueko eta Gabon-zaharreko suenak, Gabon-gauean erretzen den enborrharekin zerikusia dute.

Caro Barojaren ustez<sup>6</sup>, Olentzarok “O”ren sasoi izendatuko luke. Franzian zehar kantatzen ziren “O de Noel” kantuei erreferentzia eginez. Beste autore batzuentzat, aldiz, aro edo aldi onaren hasiera dela adierazten duen ospakizuna litzateke. Daitena daitela, ikazkina dugu, sasoi batean ofizio heda-

tua. Kantuak dinoenez igitia eskuan tximiniatik sartzen dena Gau-zuzi edo enborraren ondoan berotzeko. Beran, Pasaian, Andoinen, Elduaienen eta Oiartzunen aintzina, mutiko bat jazten zuten ikazgile bezala eta lepoan hartuta eramaten zuten etxerik-etxe Gabon Gaueko eskarietan.

Lesakan, Oiartzunen, Leitzan eta Arakilen, Olentzaro lastoz eta trapuz eginiko panpina bezala agertzen zaigu. Gabon gabean agertzen da eta batzuen esanetan bere emaztearekin bizi den ikazkina da. Zarautzen begi gorriak dituela diote, Elduaienen aurpegi zikina duela, ikatzez beztua. Etxekoak oheratzerakoan sartzen omen da sutondora, eta oso jatuna da. Dena den, panpin handia egiten da eta kalerik kale eskean darabiltzate bai gazteek eta bai umeek. Eta Bera eta Oiartzunen esaten den bezala Kristoren jaiotza iragartzera dator.

Eskearekin batera, kantatu egiten zen. Lesakan eskaria egin ondoren erre

“Euskal  
gizartean  
gizarte  
kontsumis-  
tari uko egin  
beharrean,  
erabili egiten  
da Olentzaro  
pertsonaia  
eta tradizioa  
kontsumo  
gizartera  
egokituz”

egiten da. Gazteak irtetzen ziren Olentzero kantatzera eta jatekoak biltzen zituzten gero lagunarteko askaria egiteko. Kantatzen diren bertsioren artean Oiartzungoa aukeratu dugu<sup>7</sup>:

*Eeeeeup!*

*Hemen heldu gerade  
berri on batekin;  
gure enbajadore  
Olentzerorekin.*

*Olentzero jua zaigu  
mendira, lanera,  
intentziuarekin  
ikatz-egitera.  
Aditu duenian  
Jesus jaio dela,  
laisterka etorri da  
parte ematera.  
Horra! Horra!  
gure Olentzero!  
Pip'ortzian dela  
eserita dago, e.a.*

### Inuzenteen eguna

Inuzenteen eguna Euskal Herriko hegoaldean ospatzen da. Abenduaren 28an umeek eta nagusiel elkarri ziria sartu eta bromak egiten ibiltzen dira. Txorierrin, egun honetan haurrek kalabaza bat utzitu eta zuloak egin ostean kandelak izotzen zituzten barnean, toki ilunetan jarriz, aurkitzen zutena belhurtzeko asmotan.

### Urtezahar edo gabonzahar

Gazeon eta Onraitan esaterako, afal ondoan suak egiten omen ziren familia batzuen artean, gaztainak erre eta jan egiten ziren bitartean. Tartean gazte-txoek zahagi zaharren zatiak makila luze baten muturrean lotu eta, erre ondoren, herriko kaleetan zehar ibiltzen omen ziren ate zaharrak beltzez markatuz eta aldi berean esanaz:

*Erre pui erre,*

*urte zaharrari ipurdia erre.*

Urteko azken egunaren gaua dugu. Gau honetan ohitura zaharren artean suak garrantzizko tokia du Gabon-gauean eta San Juanetan bezala. Zerbait herritan, Amezkoan esaterako, eskola-umeak kalez-kale ibiltzen ziren larruei su eman eta ohiuka<sup>8</sup>:

*A quemar el culo al año viejo  
con un pellejo viejo, viejo!*

Arabian ere bildu izan dira horrelako

<sup>5</sup>Barandiaran, J.M. de (1984): Diccionario de Mitología vasca. Txertoa. 154 or.

<sup>6</sup>Caro baroja, J. (1980): Sobre la religión y el calendario del pueblo vasco. Txertoa, 112 or.

<sup>7</sup>Arregi, G.; Erkoreka, A. eta batzuk (1985): “Juegos infantiles en nuestra sociedad tradicional. Umeen jokoak gure gizartean” in Intxausti, J. Euskal Herria eta Gizarte, 504 or.

<sup>8</sup>Ibidem, 504 or.

ohiturak Erre puierre izenaz. Agurainen su handi bat egiten zuten plazan eta neska-mutikoez suaren gainetik jauzi eginez honela kantatzen zuten:

*Erre puyerre, quemale el culo a  
Gallerre*

*Erre puyerrín, quemale el culo a  
Don Crispín.*

### Urtats edo urteberri

Urtearen lehen egun honetan Euskal Herriko toki batzuetan iturrira doaz eta bertako lehen ura edaten dute gauerdiko hamabiak jo eta segidan. Momentu hortako ura edateak aparteko birtuteak ei ditu. Horregaitik, Lekarozen esaterako umeak iturrira joan eta pitxarretan bildu ura, eta gero etxerik-etxe banatzen zuten. Beste herri batzuetan urteberriko kuestazio kopletan agertzen den leloak adierazten du:

*Urte berri, berri,  
Zer dakarzu berri?*

*Uraren aña,  
Bakia ta osasuna  
Urtez, Urtez.*

Altsasun adibidez zera kantatzen zen:

*Ur barrena, ur goyena  
Urte berri egun ona  
Etxe honetan sartu dedilla  
Pakiarekin osasuna,  
Urarekin ondasuna.*

Urte Barri egunez, Bizkaiko hainbat herritan ohitura da umeak senitartekoen etxeetatik kuestazioa egitea:

*Urte barri, barri  
daukanak eztaukanari  
nik eztaukat eta  
txarribelbarri.*

### Errege eguna

Erregeak Hego Euskal Herrian ospatzen dira bakar-bakarrik. Egun honetan opari trukaketa egiten da eta nagusiek haur txikiei erregeak ekartzen dituztela esaten die. Horretarako aurreko eguntan gutuna idazten dute haurrek eskatzen dituzten opariak aipatuz. Errege egun bezperan, herri gehienetara Erregeak etortzen dira Kabalgatan Errege Kabalgata deritzon ospakizunean. Gau horretan haurrak laister oheratzen dira zapatatxua garbi-garbi balkoian jarri ondoren. Usadioak dioenez erregeak gabaz datoz. Hurrengo goizaldean hau-



rrak ohetik jeiki eta opariak ikustera doaz.

Lehenago hainbeste jostailu eta opari ez zegoenean aitabitxi eta amabitxiak edo aiteponteko eta amapontekoak besoetakoei errege opila oparitzen zien toki askotan. Egun honetan, ohikoa zen haurrak auzoko etxetara joatea eta bertan aginaldoa eskatzea. Toki askotan hainbat koplak ezberdin kantatzen da egun honetako eskariak egiteko.

Arregik, eta beste batzuk<sup>9</sup> bildu dutenari jarraituz Bizkaian eskari ibiltzea ohikoa zen haurren artean. Zeanurin ematen zena biltzeaz batera, hauxe kantatzen zen:

*Apalazio zaldune  
ru Erregen egune;*

*Iru Erregeak bialdu gaituz,  
limosnatxu bat beogule.*

*- Sotzak eta paluek,*

*Martin Oroskoarren kontuek:*

*Martin Oroskoarrari eroan dutsez*

*Iru Ollanda katuek*

*Ain asurrek batu ezinde.*

*- Arek darabisen sailtuek!*

*Sailu te brinku (bis)*

*Jose Marien aurrean*

*Gabon gaueko intsaur saltzea*

*Ondo birrindu artean.*

### Lan eta lan

Ikastola eta eskoletan Olentzero lan- dola izan da orainarte. Olentzaro batez ere, nahiz eta Gabonakin eta Neguarekin lotuta landu kasu batzuetan. Euskal Herriko tradizioan badaude sasoi honetan erabili eta irakasteko beste gai batzuk ere. Zorionez gero eta gehiago

gara ohitura zaharrak berreskuratu eta gaurkotzen ahalginetan gabiltzanak, egia baita Paulo Iztuetak Intelligentsia kimatuaren orbelak liburuan (55.or) dioena:

*“Nola ulertu oraingoa, nola joan etorkizuna eraikiz ez bada aintzako-tzat hartzen lehena? Nola izan zernahi gizaki nahiz herri, memoria historikorik gabe? Ezinezkoa da. Saiatu gaitetzen, bada, geurea den euskal kultura bultzatzen”.*

Urte luzeetan gogoan erabili diren asmo eta proiektuak gauzatuta ikusten hasi gara, hala nola, Pantxo eta Pellok Ikastolen Federakundearen eta Labayrurenkin lankidetzan oraintsu argitaratu duten Oles eta Oles bilduma. Guztion lana da tradizioa jaso, berri eta gazteei irakastea. Ekin lanari eta Eguberri On!

### Bibliografia

ARREGI, G.; ERKOREKA, A.; MANTEROLA, A eta MARTINEZ, U. (1985): “Juegos infantiles en nuestra sociedad tradicional. Umeen jokoak gure gizartean” in Euskal Herria. Historia eta Gizartea, I, 504 or.

BARANDIARAN, J.M. de. (1984): Diccionario de Mitología Vasca. Txertoa. 154 or.

CARO BAROJA, J. (1980): Sobre la religión antigua y el calendario del pueblo vasco. Txertoa

Hiztegi Entziklopedikoa. Elhuyar, 1285or.


IZTUETA, P. (1996): Intelligentsia Kimatuaren orbelak. Kutxa Fundazioa. Donostia.

<sup>9</sup>Op. Zitatua

# **e**lkarriketa

JOXE AZURMENDI

“*Hezkuntza, balioen arteko harmonia bilatzeko da garrantzitsua*”



Joxe AZURMENDI (EHUko filosofia irakaslea)

**J**oxe Azurmendi zegamarra gaur egungo euskal pentsalari ezagunetarikoa dugu. Euskal Herriko historia, literatura eta pilleko gaiei buruz egindako ikerketa eta saiakerengatik merezi izan du kalifikazio hori. Oraingo honetan eta nahiz berak aitortu balioak ez direla bere espezialitateko gaia eta balioez fundamentuzko gogoeta sistematikorik ez duela egin, guztion ahotan eta programetan darabilzkigun ditxosozko balio horiei buruz atera dizkiogun iritziak ezagutuko ditugu.

**Emango al zeniguke balioen definizioa?**

Balioak, etikaren ikuspegitik, gizarte bateko harremanak antolatuzko lagungarri diren arau edo orientabideak dira. Baina balio hitza ekonomiari hartutako kontzeptua da. Kapitalismoak "prezioa" ezarri du merkatuko arautzaile, eta eredu hauxe giza-harremanetara pasatu nahian "balioei" eman die prezioek merkatuan duten paperaren betekizuna.

Prezioek de facto arautzen dute merkatua, beraz, eta honen irudi eta antzera "balioek" gizartea arautzea nahiko lukete batzuek. Balioez esaten dena aztertzerakoan tentu handiz jokatu behar da balioen diskurtsoaren atzean azpijoko eta tranpa askotxo gordetzen baita.

**Nolatan da hori?**


Momentu honetan batik bat boterearentzat dira oso interesgarriak balioak. Krisi garaietan gizartean urgentziaz esku hartu behar denaren ustea izaten da. Elizak, estatuak, alderdiak, denak sartu nahiko lukete tartean eta hemen hasten da manipulazioaren

jokoa. Garai hontantxe balioen bidetik ari dira horietakoak barra-barra ematen. Esaterako, "bizitza sakratua dela" diote batzuek. Benetan polita litzateke pertsona, txori eta gainontzeko animalia, basoen... bizitzarako balio hori egia balitz. Baina hori aldarrikatzen dutenek egundoko dirutzak erabiltzen dituzte armatarako, bizikatea goitik behera kutsatzen eta basoak deuseztatzen dituzte. Botereak horrela arrazoitzen jarraitzen du: "bizitza ez da sakratua, baina behar du izan... besteentzat, ez guretzat". Balioak gizarteak berak elkarbizitzeko sortutako araua izan partez beste nonbaitetik ezarri nahi zaigun obligazio moral bat izatera pasatzen da. Honatx kontraesan galanta.

**Noiztik ari gara balioen joko honekin guztiarekin?**

Europar eta XIX. mendearen erdialdetik aurrera hasi zen balioez hitz egiten. Ordura arte etikaz eta arauz min-

**"Hazkunde ekonomiko batek jaso zuen herria XIX. mendean baina erabat puskatu balioen mailan"**



tzatzen zen eta gizarteak arauak behar zituztela onartuta zegoen. Arau haiek krisian erori zirenean, ordea, balioak azaldu ziren. Hau 1890. urtearen inguruan izan zen Austrian eta geroxe-ago Alemania eta Ingalaterran. Orduan hasten dira garatzen balioen filosofia handiak eta eztabaida hauek Lehen Mundu Gerrara arte iraungo dute. Baina nahiz eta terminologia ezberdina erabili honen guztiaren jatorria Greziako Atenasen dago sofistekin.

Han iraultzaren ondoren demokrazia sortu zenean krisi handia etorri zen, gizartea bera balio-sistemen eta klase-sistemen arabera zatikatuta geratu zen eta gatazka ikaragarria sortu zen. Garai horretako da sofistek emandako soluzioa: garrantzitsuena ez da balio onenak nork dituen, diskurtso egokiena nork duen baizik. Gaur egungo hitzetara itzuliz, ez nork dituen baliorik zuzenenak, baizik eta nork duen prentsarik eta mediorik onenak balio batzuk ezarri eta nagusiarazteko. Horrela sortzen dira balioen erabilera eta manipulazioa. Sofisten teoriaren erreakzio bezala dugu Platonen Metafisika guztia. Platonek dio balioek oinarri absoluto eta eztabaidaezin bat izan behar dutela. Honen gauzatze ezaguna kristautasuna dugu, non Jaungoiko platoniko batek eusten baitie balio kristauei. XIX. mendean,

# JOXE AZURMENDI



“*Balioak, etikaren ikuspegitik, gizarte bateko harremanak antolatzeko lagungarri diren arau edo orientabideak dira*”

ordea, krisia iritsi zen berriro, eta hartan gabiltza oraindik. Orduan hasitako eztabaida 100 bat urte beranduago iritsi zen Euskal Herrira, Europako beste lurralde katolikoetan gertatu zen bezalaxe.

Euskal Herriaren kasuan hazkunde ekonomiko batek jaso zuen herria XIX. mendean baina erabat puskatu balioen mailan. Karlismen ondoren indarrean jarri ziren sistema publiko guztiak, eskolatik hasita alienatzaileak izan dira Euskal Herriarentzat. Euskararekiko izan duen eragina horren lekuko. Axolagabe, inbaditzaile eta espa-olizatutako klase batek zuzendutako hazkunde ekonomiko hark ez zuen indarberitutako kultura bat ekarri, gaurdaino irauten duen kaos itzela baizik.

**Nolakoa zen ordura arteko Euskal Herria? Zein ziren orduko baloreak?**

Euskal gizarte baserritar tradizionala autonomia izan da. Nik uste XV-XVIII. mendeen arteko Euskal Herria bera jabe izan zela, foralista eta bere burua ordezkatzeko zuten foruek harro sentitzen dena. Bere etxearen jabe zen euskaldun hori errege txiki bat zen eta orduko burujabetasun hark irauten du oraindik ere. Horrexegatik ez dute gizarte euskaldun tradizional hori lehenago akabatu, horrexegatik irauten du gaurdaino. Euskaldunon beste betiko balore bat nobleziarena izan da. Euskaldunak nobleak ziren. Euskaldunak nobleak deklaratzeko denak berdinak kontsideratzea zen eta hori bai dela soluzio jentilak. Antzeko zer-bait izan dute suitzarrek ere. Behar bada mendi-herri isolatuetan soilik izan da posible nobleziari uko egitea. Nekazarien harrotasun hau positiboa zen eta ez da inoiz botere handi bat bihurtu beste herri batzuren aurka airtzeko. Gandiagak dioen bezala, bada jenderik piramideak bezalako monumentuak ikusi ezearterik dagoela uste duena, eta Euskal Herriko historian ez dago piramiderik, ez da inoiz egon botere-konzentrazio handirik, ez

eta onartu ere. Ez zegoen jauntxorik, hiriburuak aldakorak izaten ziren... Garbi dago gure sistema guztia botere konzentrazioaren aurkakoa izan dela harik eta 1876.an Foruak kendu zizkiguten arte. Geroztik gerra zibilak, baserriarren humilazio ikaragarriak, kalearen nagusitzeak, oraingo ekonomia eta sistema zentralistak...

**Zein balio garatu ditugu harrez geroztik?**

Historikoki eta ni jaio nintzen gatazka handirik gabeko gizarte hartan LANA zen lehen mailako balioa. Lanarekiko jarreraren arabera bereizten ziren pertsonak, langileak eta zuriak. BERDINTASUNAREN kontzeptua ere bazegoen euskaldunen artean nahiz eta geroago jauntxoarekiko, fabrikako nagusiarekiko, medikuarekiko... gehiegizko errespetua eta umiltasuna garatu. ELKARTASUNA ere ohikoa zen auzolanean eta etxe erre-eskean. EUSKALDUNEN ARTEKO ERRESPECTUA. Nire oharmenean bi pertsona nagusik elkarrekin borrokatzea ez zegoen ondo, elkar jotzea larria zen eta labana ateratzea gizatasun falta ikaragarria zen. GURASOEKIKO ERRESPECTUA, AMARENTZAKO BENERAZIOA, JAIOTZA eta HERIOTZAREN AURREKO JARRERA MANTSOA eta ETSIPENEZKOA, beste kultura batzuetako jendaurreko garraxi, oihera eta negarren zeharo kontrakoa berau. ERLIJIOA ere balio bat izan da, kristautasuna eta aurretiko jarrera erlijiosoak: udako solstizioaren suak, etxe azpian beren hildakoak lurperatzea, beste kultura zenbaitetan bezala euskaldunak ere bere hildakoen gainean bizi izan dira, arbasoak etxean zeuzkan eta beraien tradizioa transmititzen zuten, ETXAREN BENERAZIOARENA....

**Gaur egungo balioen artean zein aipatuko zenituzke?**

Oraingoan artean gazteen arteko IDEALISMO HARRIGARRIA. Dena kontra eduki arren aurrera jarraitzen du gazteak. INTERNAZIONALIS-


MOA oso zabalduta dago. Garai bateko euskaldunak dirua lortzera bakarrik joaten ziren Ameriketara eta hango indigenen bizitzaz ezer gutxi arduratzen ziren. LAGUNARTEAK ondo funtzionatzen du eta ADISKIDETA-SUNARI garrantzi handia ematen zaio, biak ere ondo balio tradizionalak eta egun mantentzen direnak.

**Balio tradizional batzuk mantentzen ditugu. Hori ona al da ala modernizatu egin behar dira?**

Balioak beti dira diskutigarriak eta herri bat ez da momentu guztietan berdina izaten. Balioak ere bere garaiak dituzte eta ez dira inoiz bapatean onartuak izaten. Tradizioak balio positiboak dira printzipioz, baina tradizio askok ez dute eboluzionatzen eta hondatu egiten dira azkenik. Gaur egungo arazo asko gure balioak era normalean garatu ahal izateko ahalmunik izan ez dugulako etorri zaizkigu. Horrenbeste borroka politiko eta militarrekin ez dugu herri bezala garapen normala izan. Hau onartu beharrean gaude, herri eta kultura bezala, gaixo eta zanpatuta gaude handiak direla eta handiak izan behar dutela sinesten duten auzokoak ditugulako. Handia izatea sakratu egin nahi dute gainera, arrazoa gehiengoak daukala esanez. Eta hau ez da egia, gehiengoak izaten duena bere arrazoiak gauzatu ahal izateko tresnarik onenak, baina arrazoi kon-tuan ez gehiago eta ez gutxiago.

**Zein balio dira unibertsalak eta zein tokian tokikoak?**

Ni sailkapen horri alergikoa naiz. Unibertsal-partikular erako sailkapenak hobe txarra ideia ezkututzen ohi du atzean. Europar burgesek ere kultura islamikoaren baloreak oso atzerakoiak eta gainditu beharrekoak zirela pentsatu zuten. Berdin uste izan zuten Afrikako edo Hego Amerikako indioei buruz. Balio mailan, ordea, sailkapen honek ez du zentzu handirik. Balio guztiak unibertsalak dira beti. Estatuak ez dira unibertsalak, gizakiak oster, bai. Beraz, gizatasuna uniber-



“Herri eta kultura bezala, gaixo eta zanpatuta gaude handiak direla eta handiak izan behar dutela sinesten duten auzokoak ditugulako”

tsala denez, gizatasuna garatzen laguntzen diguten balio guztiak unibertsalak lirateke. Balioen unibertsaltasun hau eskaintza bezala ulertu behar da, eta balio guztien eskaintza unibertsala da, ez dago bata bestea baino unibertsalagoa den baliorik, nahiz hauxe bera izan hain zuzen gaurko gizarteko egunkariak, irrati eta telebistek egiten dizkiguten txantaietako bat.

Hala ere, amerikanoak “balio amerikanoez” mintzatzen dira eta frantsesak “balio errepublikanoaz” (= frantsesak), eta Euskal Herrian hor dugu politeneta-tako bat, lehenago aipatu euskal nobleziarena.

**Zer egin dezake hezkuntzak auzi honetan?**

Nire ustez oso garrantzitsua da gizarte batek balio-sistema sendo eta sano bat edukitzea. Onartzen dut gizarte batek auto-hezi beharko lukeela eta horregatik ez dut Hezkuntza kanporatzen joko horretatik. Baina balioak irakatsi baino nik uste dut Hezkuntzak horrela eragin beharko lukeela: Guk balio hau, hau eta hau ditugu eta horien artean harmonia bat bilatu behar dugu eta balio horiekin bizitzen ikasi behar dugu. Hezkuntza balioen arteko harmonia lortzeko litzateke bitarteko garrantzitsua baina ez balio jakin batzuren predikuak egiteko. Hezkuntzaren zeregina ez da beraz balioak irakastea, aitzitik, dau-



# JOXE AZURMENDI



“*Balioa  
gizarteak  
berak  
elkarbizitzeko  
sortutako  
araua izan  
partez beste  
nonbaitetik  
ezarri nahi  
zaigun  
obligazio  
moral bat  
izatera  
pasatzen  
da*”

den balioak azaldu eta horien arteko adostasuna bilatzera bultzatu behar luke. Azken finean horiekin bizitzen ikasi behar baitu gizakiak, eta gizakiak dituen premiatatik eta beharretatik ikasten duena da balioa.

Euskaldunok, beste edozeinek bezala, egin behar duguna informazioa edukitzea da, kanpoko esperientziak ezagutu eta ideiak kopiatu; ideiak diot eta ez soluzioak. Ideia horiek gure premiei, gure kulturari eta izateko erari moldatu beharko ditugu. Mundua aspalditxoan asmatua dago eta.


**Hemengo hezkuntzaren ezaugarrietako bat publiko-pribatu arteko bereizketa da. Zer deritzozu horri?**

Hasteko publiko-pribatu zatiketa hori ezabatu beharko genukeela iruditzen zait; ikastetxe denak izan behar lukete publikoak eta gurasoen nahia- ren arabera antolaketa ezberdinak gauzatu. Publiko-pribatu bereizketa hau XIX. mendeko arrazonamenduetan oinarritutako bereizketa dela dirudi. Beste gauza batera pasaz, ni bizitzak sortzen duen aniztasunaren alde nago baina A, B, D eta G ereduak eskola- klinika baten ondorioak dira. Gure herria gaixo dago eta klinika bat muntatu digute baina ez horregatik eredu- garri. Euskal curriculuma ere garatu beharrekoa da baina ikastetxetik bertatik, hau da, eskolan dagoenak osatu

behar du curriculum hori eta ez teori- koak, goitik edo kanpotik etorritako batek. Hauxe litzateke gure desbalioe- tako bat, gure pulpitu-sistema hau.

**Zer dira desbalioak?**

Balioen ezaugarria ez da bakarrik positiboa izatea, positiboa eta negati- boa baizik. Balioak bipolar agertzen dira: maitasuna-gorrotoa, ongia-gaiz- kia, errukia-mendekua. Horregatik ez da posible ezer absolutaraino garatzea, erruki absoluto bat desastrea gertatu- ko litzateke eta beste balio batzurekin kompensatu beharra dago. Balioen alde negatiboari deitzen diogu “desbalioa”. Euskal Herrian heredatu dugun balio- sisteman dagoen desbaliorik txarrene- tarikoa “argia” duen jendea badagoela sinestea da, maisuek ez dauden lekue- tan bilatzen aritzea alegia. Parrokoak herriak egin behar duena esatetik libe- ratu baldin bagara, libera gaitezen estatuen “jakintsuengandik” eta egun- kariatako “maisuek ideologikoengan- dik”. Horien guztien esanak ideiak, gogoetak edo posibilitateak besterik ez dira eta izatekotan ere geure argia bilatzen lagun dezaketena, baina argiak lanean arian-arian pizten dira eta ez bestela. Beste desbalioetako batzuk zikinkeria eta narraskeria ditu- gu... ez da ahaztu behar krisian erori eta gaizki moldatzen ari diren herriak alde negatiboak eta gorrotagarriak ere garatzen dituela.



# hik hasi

euskal  
heziketarako  
aldizkaria

24

ESKORIATZAKO  
MUSEO ESKOLA  
"Ez ukitu"  
txartelik gabeko  
museoa

# Eskoriatzako Museo Eskola: "Ez ukitu" txartelik gabeko museoa



**G**ipuzkoako Eskoriatza herriko Museo Eskolako atarian gaudelarik, ez dugu zalantzarik izan barrura sartzeko. Ez da ohiko museoa, Museo eskola baizik. Gauzak ikusi baino zerbait gehiago egiten da; ikasi, kontzientziatu eta barrukoa kanpoko errealitatearekin alderatu.

Museo Eskolako atea zeharkatu eta berehala kontura gaitzeko bere aniztasunaz. Gauza anitz eta desberdinak daude, aretoa txoko desberdinez antolatua dagoelarik. Hasieran, sartu eta lehendabiziko txokoa, naturarena da. Maketa bat, animalia, Lurraren sorrera, estratigrafia... dira natura azaltzeko dauden elementuak. Gizakion historian naturak izugarritzko garrantzia izan du eta du oraindik ere, eta hori isladatzea da helburua. Isabel Guridi museoko arduradunak dioenez gu natura gairela esaten saiatzen da. "Horretarako beti galdera bat egiten diegu: gu Lur planetan bizi gara ala bizi eta Lur planeta gara?" Erantzuna ez dira beti berdinak izaten, baina gehienetan ikasleak ez dira Lur planeta sentitzen hasieran. "Museoa ikusi ahal behin baino gehiagotan errepikatzen diet galdera, eta pixkanaka gu

sentitzen joaten dira. Pauso bat ematen dute, Lur planeta gairela sentitzen dute, partaide sentitzen dira".

Natura ezagutzeaz gain, gizakion bizitzarekiko lotura eta harremana erakusten saiatzen da Isabel, eta Historiaz baliatzen da horretarako. Historiaurrea, erromatarren garaia, Erdi Aroa, gizarte modernoa... poliki-poliki etapa guztiak ezagutzen dira. Bakoitzeko artea, bizimodua, gizakien arteko harremanak, sinesmena... "Atal hauek guztiak ezagutzeko museoko tresnez baliatzen naiz. Denetik pixkat daukagu, kaxoi asko momentu konkretu batean egiten dituzten galderi erantzuteko". Aro bakoitzeko gertaera garrantzitsuenak azaltzen dituela azaldu digu Isabelek. "Esaterako, erromatarren garaian burdina erabiltzen hasi zirela, Aro Modernoan zerrailaren eboluzioa ikusten dugu, sukaldearen ebo-

luzioa ere bai EEBBtako sukalde modernoak ikusiz eta abar". Zientzia ere ukitzen da, baina ingurugiro ikuspegitik beti ere: ozonoa, CO<sup>2</sup>, Lurra zer den, zein materialez osatua dagoen eta nolako eboluzioa jasan duen... Gardenkiak, bideoa, tresnak zahar eta berriak eta arbela dira besteak beste azalpenak emateko erabiltzen dituen bitartekoak.

Gainera, material guztia dagokion lekuan kokatua dago. Isabelek dioen bezala, "elementu bakoitzak funtzio anitz betetzen ditu heziketa mailan eta gauzak horren arabera antolatu ditugu. Ez ditugu kokatu lekua zegoenaren arabera, ematen diogu garrantziaren eta betekizunaren arabera baizik". Horregatik dago lehenengo lekuan natura, horri ematen diotelako garrantzi gehiena. "Gero gizakiaren eboluzio fisiko eta psikikoa daukagu, aldaketa biak ikusiz homo erectusetik hasita. Ze pauso eman zituzten, zer jaten zuten, ibiltariak zireneko bizimodua... Historia kontatzea da gakoa."

### Museoaren helburuak

Modu berezian antolatutako museo honen helburu nagusiak hiru dira:

1) Eboluzioaren bitartez ikasleek lur planetan gertatu diren aldaketak ulertzea ikuspuntu desberdinetatik: fisikoa, biologikoa eta soziokulturala, lurra eratu zenetik, aro desberdinetan zehar, gaur egun arte. Gizakiak bere ingurunean izan duen eragina ezagutzea ere bai, eta baita momentu historiko bakoitzean agertu zaizkion arazok konpontzeko aurkitu dituen irtenbideak ezagutzea ere.

2) Historiaren ezagutzaren bidez, ikasleek gaur egungo arazoetaz kontzientzia hartzea da bigarren helburua, bai ingurugiroaren ikuspuntutik, bai ikuspegi sozio-ekonomikotik. Arazo hauei irtenbidea aurkitzen era aktibo batean parte har dezaten bultzatzea behar zaie, gaur egungo arazo guztientzat izadiak bere baitan daukala irtenbidea kontuan harturik.

3) Ikasleak bere erlazioetan (Beste gizakiekin, ingurune naturalarekin eta sozialarekin) gizakiak berezko dituen baloreetan birbaiezia daitezela: senti-

bilitatea, elkartasuna, errespetua, parte hartzea, taldeko lana, kritika... Bertan protagonista senti daitezela, elementu aktibo eta egunetik egunerakoaren sortzaile bezala.

Helburu hauek ikasleei zuzenduta daude, baina irakasleok ere beraiekin batera joaten gara. Guk ere ikasteko aukera badaukagu. Bidez batez, museo eskolako bisitari ahalik eta etekinik handiena atera behar diogu, gure programan txertatuz. Horregatik, museoko arduradunak zerbait gauza kontuan hartzen ditu:

1) Irakasleekin batera bisitaren aurretik, bisitan bertan eta ondoren landuko diren gaiak erabakitzen dira.

2) Museora etortzeko aukerak erraztu eta gehitzen saiatzen da lantzen diren gai horiek eskolako curriculumean sartzeko. Horrela ez da bisita aislatu bilakatzen.

3) Museo eskolan egiten diren aktibitateak norberak bere eskolan aurrera eramanez ahal izateko behar diren material eta metodologia ezagutzera ematen da ahal den neurrian.

### Interdisziplina

Helburuotan argi ikusten da museoak gela barruan lantzen

**"Ikasleak beraiek dira bisita gidatzen dutenak. Nik ez dut programa zehatzik edukitzen"**

### 1.- Eduki blokeak

1) Lurraren eraketa, eboluzioa eta gertatutako aldaketak ikuspuntu fisiko eta biologikotik.

2) Bizitzaren agerpena eta bere eboluzioa (etapak).

3) Hominizazioa.

4) Prehistoriako aroen desberdinetan eta bakoitzaren ezaugarriak.

4.1. Klima, flora eta fauna aro desberdinetan.

4.2. Habitat-a.

4.3. Lanabesak eta aurkikuntza garrantzitsuenak.

4.4. Ehorzketak, lehen manifestapen erlijiosoak eta monumentu megalitikoak.

4.5. Aurrerapen kulturalak eta beste herriekiko kontaktak.

5) Erromatar garaia.

5.1. Garapen politiko eta soziala.

5.2. Garapen kultural, teknologiko eta artistikoa.

5.3. Garapen ekonomikoa.

5.4. Mitologia eta erlijioa.

6) Erdi aroa.

6.1. Berrestrukturazio soziala eta klase sozialen eraketa.

6.1.1. Erlijioaren garrantzia eta boterea.

6.1.2. Feudalismoa.

6.1.3. Emakumearen papera.

6.2. Kulturen nahasketa: beraien arteko interakzioak eta ondorioak.

6.2.1. Zientzien eragina.

6.2.2. Ekonomian eragina.

6.2.3. Gizartean eragina.

7) Berpizkundea.

7.1. Lur berrien aurkipea eta konkista.

7.1.1. Amerika eta euskaldunak.

7.1.2. Kultura eta herri desberdinak.

7.1.3. Nazioarteko ekonomian eragina.

7.2. Aurkikuntza eta aurrerakuntza teknologikoak.

7.2.1. Aldaketa sozial eta ekonomikoa.

7.2.2. Industrializazioa. Fase eta ondorioak.

8) Euskal Herriko kultura.

8.1. Lurretik ogira.

8.2. Mito eta leiendak.

8.3. Geografia eta historia.

## 1. TAULA

diren edukiekiko lotura lortu nahi duela. Hori da bere egitea, osagarria da eta bizipen eta esperimendu zuzenak eskainiz lortzen du bere egitekoa. Horregatik, edukiak sailkatuta daude 1. taulan ikusten den bezala.

Gai hauek guztiak ez daude elkarren

segidan liburuetan bezala. Museoa ez dago goitik behera jarraitu behar den aurkibiderik. "Ikasleak beraiek dira bisita gidatzen dutenak. Nik ez dut programa zehatzik edukitzen. Badakit zein baliabide ditudan hemen eta beharren arabera erabiltzen ditut".

Taldeak eskatzen duena ematen du eta hori da irakaskuntza konstruktibistaren oinarria. "Egun bateko saioaren eta bezperakoaren artean %20 errepikatzen da, baina beste gutzia desberdina da". Ez dago "Ez ukitu" jartzen duen txartel bat bera ere.

**2. TAULA**

	LEHEN HEZKUNTZA		DBH		BATXILERGOA
	Kurrikulumeko edukiak	Zehar lerroak	Kurrikulumeko edukiak	Zehar lerroak	Kurrikulumeko edukiak lerroak
<b>1. Zikloa</b>	-Aintzinako gizona.		-Lurraren eraketa eta bere eboluzioa. -Bizitzaren egerpena eta eboluzioa. -Hominizazioa. -Prehistoria. -Ertaroa. -Berpizkundea. -Industrializazioa. -Energiak. -Haitz eta mineralak.	-Ingurugiroa. -Koheziketa. -Giza komunikazio baliabideetako heziketa. -Garapenerako heziketa.	-Lurraren eraketa eta bere eboluzioa. -Bizitzaren agerpena eta eboluzioa. -Hominizazioa. -Prehistoria. -Ertaroa. -Berpizkundea.
<b>2. Zikloa</b>	-Gure arbasoak. -Euskal Herriko kultura.	-Ingurugiroa. -Koheziketa.	-Lurraren eraketa eta bere eboluzioa. -Bizitzaren agerpena eta eboluzioa. -Hominizazioa. -Prehistoria. -Ertaroa. -Berpizkundea. -Mito, errito eta leiendak.	-Ingurugiroa. -Koheziketa. -Giza komunikazio baliabideetako heziketa. -Garapenerako heziketa.	
<b>3. Zikloa</b>	-Lurraren eraketa eta bere eboluzioa. -Bizitzaren agerpena eta eboluzioa. -Hominizazioa. -Prehistoria. -Euskal Herriko kultura. -Ibaialde. "Deba Garaia"	-Ingurugiroa. -Koheziketa. -Kontsumoa.			

Dinamikotasuna nabaria da museoan eta mugikortasun horren ondorioz interdisziplinitatea lortzen da. Hots, gai guztiak lantzerakoan zeharlerroak sartzen dira eta Isabelek dioenez hori da museoaren berezitasunik nagusiena. “Natura ardatz bezala harturik 1. eta 3. mundua, osasuna, emakumea eta abar lantzen ditugu”. Zeharlerro guztiak lantzeko aukera sortzen dela esan dezakegu. Eta ondorioz, curriculumeko edukiak, hauek zeharlerroen bidez lantzen baitira. Hurrengo taulan ikusten da harreman hori.

Baina dena ez da hor gelditzen. Museoko bisitak mezu bat dauka: barruan ikusten diren gauzak kanpoan praktikan jartzea. Helburua ez da gauza konkretu bat egitea, baizik eta ondorio batzuk atera eta eguneroko bizitzan praktikan jartzea. “Hemendik ateratzean asko dakitela konturatzen dira, eta hemen baliagarri ikusten dutena kanpora ateratzen dute”. Talde batekin izandako esperientzia jarri digu adibide gisa Isabelek. Kioton izandakoaren antzeko bilera egin zuten. Gurasoei gauza bat eskatzeko konpromezua hartu behar zuten: iaz gabonetarako oparia erosteko gastatu zuten dirua baino gutxiago gasta dezaten eskatzeko prest al dauden galdetu zien Isabelek, eta zenbat gutxiago.



**“Helburua ez da gauza konkretu bat egitea, baizik eta ondorio batzuk atera eta eguneroko bizitzan praktikan jartzea”**

Bakoitzak papertxo batean idatzi zuen: batzuk %4, beste batzuk %3, 0, %20... Guztien arteko batazbestekoa atera zuten azkenean eta %4,5ean gelditu zen. Talde osoak gabonetarako oparietan gurasoei %4,5 gutxiago gasta dezaten eskatzeko konpromezua hartu zuen. “Taldek gizarteko eredu dira eta hemen hartzen diren erabakiak garrantzitsuak dira. Hori da beraiek ikusi behar dutena, beraiek ere alda ditzaketela gauzak”.

Azken finean, museoan mezu bat jasotzen dute. Helburua ez da bilduma zoragarriak edukitzea eta jendea horiek ikusiz harritzea. Bilduma onak dituzte eta jendea harritzen da, baina xedea mezua jasotzea da.

## ***Isabel Guridi: “Hemendik ukituta ateratzen direla ikusten dut eta gauzak aldatzen saiatzen direla”***

**I**sabel Guridi irakaslea da museo berezi honen arduraduna. Egunero-egunero ikasle talde desberdinak egoten dira bere kontuak eta azalpenak entzuten. Bera da museo gidaria. “Haurrak izugarri gustatzen zaizkit eta asko gozatzen dut beraiekin nagoenean”.

### **Noiz hasi zinen Museo Eskola hau aurrera ateratzen?**

Orain dela 10 urte hasi zen istorioa, baina harrezkero etapa desberdinak bizi izan ditu. Hasiera batean museo etnografiko antzeko bat antolatzen hasi ginen. Irakasle laneko orduetatik kanpo baserrietan alperrik galtzen ziren gauzekin eraikitzea zen gure helburua. Materiala bildu genuen eta ikasleekin hura ikustera joaten ginen. Haur elebidunentzat zaila zen material horien jatorria, garrantzia eta funtzioa

ulertzea. Hori dela eta, Historiaurrea lantzen hasi ginen. Jende asko interesatu zen eta udalaren bidez oraingo lokala lortu genuen. Pittinka-pittinka museoa osatuz joan gara.

### **Osatuz eta aldatuz, zeren gero eta materiala gehiago biltzen ari bazara.**

Bai, hala da. Museoa beti aldatuz doa. Irakaskuntzak eboluzionatzen duen heinean honek ere bai. Ez da gauza prestatua eta finkatua. Iaz etorri



## Isabel Guridi

Eskoriatzako Museo Eskolako arduraduna

ziren ikasle batzuk aurten berriz etorri dira eta beste museo batekin egin dute topo.

### **Nolako jarrera dute haurrek? Interesik azaltzen al dute ala denborapasa etortzen dira?**

Normalean interesa agertzen dute. Gainera, nire azalpenak eguneroko bizitzari oso lotuak egoten dira. Hurbiltasun horri esker errazago ulertzen dute eta bigarren pausoa ematea ere errazagoa da. Alegia, ekintzetara pasatzea. Gauzak aldatzea zaila dela esaten dute, baina geure mailan ere zerbait egin dezakegula azaltzen saiatzen naiz. Adibidez, gauzak ezin baditugu aldatu nire kontzientzia ez dagoela lasai esaten diet, eta ezin dudala hainbeste argi piztuta eduki. Argiak itzaltzen ditut eta horrela egoten gara denboralditxo batez.

### **Beraz, garrantzitsuena kontzientziatzea da.**

Bai. Horretarako historia azaltzen saiatzen naiz, historia jakitea oso lagungarria baita etorkizunari aurre egiteko.

### **Nola lortzen duzu hori, zein metodologia erabiltzen duzu?**

Sentimenduen arloan sartzen naiz

eta ipuinen bidez azaltzen dizkiet gauzak. Esaterako, 4. anaitxoaren ipuina askotan erabiltzen dut. Historiari joz aurreko hiru anaitxoak ezagutzen ditugu: kobazuloan bizi zena, lastozko etxean bizi zena eta harrizko etxea egin zuena. 4. anaitxo gaur egungoa izango litzateke. 4. anaitxo edukitzeko kontzientziatuta al gaude? galdeztzen diet. 4. anaitxo hori arazo askorekin topatuko da gaur egungo munduan eta hori aldatzen saiatu behar dugu. Adibidez, 1. eta 3. munduaren arteko arazoa.

### **Arazo handiak eta orokorrak dira horiek. Haurrek ulertzen al dute?**

Ulertzen dute era egokian azalduz gero. Adibidez gauza baten aurrean jartzen garenean, batzuk aurrean egoten dira eta beste batzuk atzean gelditzen dira. Aurrekoak 1. mundukoak direla esaten diet eta atzekoak 3. mundukoak. Aurrekoek makurtu egin behar dute atzekoek ikus dezaten, 1. mundukoek listoa jeitsi behar dute. Horrelako adibideekin erraz ulertzen dute. Gainera, hasieran neuk azaldu eta gogorarazi behar diet, baina bukarerako ezer esan gabe jartzen dira.

### **Euskal mitoak eta ohiturak ere baliagarri izango dira zenbait gauza azaltzeko, ezta?**

Bai, modu atsegin eta ulerterraza suertatzen da. Lurperaketak esplikatzeko garaian esaterako, Arkeologia eta Historian lurperaketek zuten edo duten zentzua ez da aztertzen. Sentimenduak ez dira ukitzen eta hemen hori da lantzen duguna. Kasu honetan ama-emearen istorioa kontatzen diet.

### **Zein da istorio hori?**

Ama batek seme-alaba asko ditu, baina seme batekin duen harremana oso berezia da. Izugarri maite dute elkar eta egun osoa elkarrekin pasatzen dute. Besteek ez dute ulertzen erlazio hori, baina beraiek oso pozik eta zoriontsu bizi dira.

Baina egun batean semea hil egiten

da. Amak izugarrizko pena hartzen du, poza pena bihurtu da. Gauan oraindik semearen ondoan dago eta zeruan arranoak ikusten ditu biraka. Haurra han uzten badu, arranoek jan egingo dute eta isilpean etxera eramán eta lurperatu egiten du. Ondoren ohitura hori zabaldu egin zen eta hortik dator lurperatzearen usadioa.

### **Horrelako gaiekin kristautasunari buruzko galderak ere egingo dituzte, bada.**

Orain dela gutxi 9 urteko ikasle batek Jesus nor zen galdetu zidan. Museoko txoko batera joan ginen eta hango tresnekin erantzun nien. Euskal mitoak kontatu nizkien: XVI-XVII. mendearen aurretik Eguzkia zela Jainkoa, erromatarrek jainko asko zituztela eta euskal gizartean ilargiak izan zuen garrantzia. Ilargia hiru egunetan desagertu egiten zen, ez zen agertzen. Hil egiten zela pentsatzen zuten eta ondoren berriro pizten zela. Jesusen bizitzarekin paralelismo handia du honek. Jesus ere hiru egun egon zen lurperatuta eta ondoren piztu egin zen. Horregatik diot oraindik bizirik daudela gauza hauek gure kulturen eta sinbolo horiek oso erabilgarriak dira egungo gauzak ulertzeko.

### **Behin baino gehiagotan aipatu duzu helburua hemen ulertu eta ikasitako gauzak eguneroko bizitzan aplikatzea dela. Ba al dakizu hori egiten duten ala ez?**

Hemendik atera aurretik eta ikusitakoaren arabera "etxerakolan" bat proposatzen diet. Zenbait kasutan 4. anaitxoarentzako etxe ekologikoa egiteko eskatu diet. Ea nolako irudimena dute eta zein gauza ezartzen dizkieten ikusteko. Ondoren, etxearen marrazkia bidali ohi didate edota irakasleak ekartzen dizkit. Beraz, hemendik ukituta ateratzen direla ikusten dut eta gauzak aldatzen saiatzen direla. Pandorak esperantza gorde zuen bere kutxan eta nire esperantza neska-mutil hauek dira.

## Informatika: Azken mamu gorriari, adeitasunez



**Josu Ximenez Maia**  
Berriozar (Nafarroa Garaia)

**O**raindik informatikaren inguruan irakasle asko eta askok mamuak ikusten ditu eta are gehiago, bada "nik ez dakit ezer informatikaz" esanez harrotzen denik ere. Euskaldun hori, urte gutxiren buruan fotokopiagailua erabiltzen ez dakienaren pareko, azken mamu gorria bilakatuko da. Horri doakio zuzendua, adeitasunez, artikulu xume hau.

Egunetik egunera gero eta irakasle gehiagok heltzen dio informatikari, baina informatikazale eta oraindik ezer ez dakitenen arteko jauzia handiagotzen ari da eta hori ez da batere ona.

Baina zergatik horrenbeste aurreiritzi ordenagailuekiko?

Besteak beste, honako kausak daude:

- Analfabeto informatiko hazi eta hezi gintuzten eta orain ikasi behar izan dugulako; batzuei beste batzuei baino gehiago edo gutxiago kostatu arren, irakasle izatearen ezaugarri bat beti ikasten ari garela da eta etengabe jarraitu behar dugula ikasten. Eta hori ona da, zeren ikasten jarraitzeko gaitasuna dugun bitartean ez garela zahartu esan nahi baitu -zahartu eta txartu dio

esaerak- eta zahartrosiak oraindik ez gaituela harrapatu.

- Irakasleriak aitortzen ez duen beste arrazoi bat bada; irakasleok beldurra diogu informatikari agian ikasleren batek geuk baino gehiago jakin deza-keelako. Niri ingeleseko irakasle izanda, Iruñeko eskola batean ama ingelesa zuen ikasle bat izatea egokitu zitzaidan. Baina horrek ez zuen esan nahi besteei ingelesa irakatsi behar ez nienik, eta bidenabar, ikasle harengandik asko ikasi nuen.

- Ordenagailua ez dabilenean ez larritu. Ordenagailua -zaila izanik errehonda daiteke. Autoa bezala, hondatuta dagoenean konpondu egiten da. Matxurak konpontzeko hobe mekanikariarengana edo teknikariarengana





joatea. Kontuz sasi-informatikariekin!  
- Informatika ez da oso erakargarria programak eta euskarriak etengabe aldatuz doazelako. Daudenak ezagutu beharko genituzke eta gero guretzat egokienak direnak aukeratu, nahiz eta berrienak ez izan.

- Ingelesez edo gaztelaniaz daude gehienak, baina zorionez gure hizkuntzan ere gero eta gehiago daude. Gure lana dauden programa eta baliabide horiek ezagutzea eta behar bada egokitzea izanen da. Baina kontuz, zeren irakasleok irakasle gara, ez itzultzaile. Hortaz, utz ditzagun itzulpen lanak itzultzaile profesionalen esku. Informatikaz baliatu behar badugu, saia gaitezen ahal dugun neurrian geure hizkuntzan egiten.

### **Erdaraz ala euskaraz?**

Berdin kostatzen da WINDOWS 95 euskaraz edo erdaraz ikastea. Gaztelera, azken finean, ez da jatorrizko hizkuntza, ingelesetik egindako itzulpena baizik. Gaztelaniaz ikasteak ez du abantailarik gero euskaraz lan egin behar dugunontzat. Zorionez badaude euskaraz dauden programak. Windows 95 bera adibidez, euskaraz txukun itzulia dago. Win 95 euskaraz ikasteko berezko gida libururik ez dago, baina Win 95 erostean disketeekin batera datorren liburukia nahikoa da nork bere kasa ikasteari ekin diezaion.

Testu prozesagailurik erabilienean, WORD 6.0, oso-osorik euskaraz dago, ia-ia erabiltzen ez diren mezu batzuk kenduta. Ez da dagoen prozesadore horren azken bertsioa, baina behar dugunerako nahikoa eta sobera.

WORD 6.0 berez ez dago Windows 95erako egina, baina posible da instalatzea eta ez du eguneroko lan arruntetan arazorik emanen.

WORD 7.0 eta WORD 97 ingelesez atera dira eta ondoren gaztelaniaz ere bai. Oso ordenagailu ahaltsua behar dute eta hobekuntzak ez dira hainbestearainokoak. INTERNETi begira ez bada, gure ikasleekin erabiltzeko behar dugunerako euskarazko bertsioari eman beharko genioke

lehentasuna, erdaraz dauden bertsioak berriagoak eta "ahaltsuagoak" izan arren.

Ingelesa jakiteak asko laguntzen du. Horregatik, ez da kasualitatea eskolatan ingeleseko irakaslea informatikazalea izatea. Baina irakasle guztiek ez dakite ingelesa eta, beraz, euskaraz dagoen bertsioa aukera daiteke. Azken finean, ikasleekin darabilgun lan hizkuntza euskara da.

Tamalgarria da batzuetan ikasleekin gertatzen dena; informatika curriculum sartu da eta lortzen den emaitza "hizkuntza mordoiloa" da, ez da ingelesera jotzen, gaztelaniara baizik.

Aurrean euskara baldin badago, eus-

**"Hasiara guztiak gogorak dira eta batzuetan arazoak daudela ez dago ukatzerik. Informatikari berea eman behar zaio atarramendua atera ahal izateko"**

karaz hitz egingo du haurrak. Informazioa euskaraz ematen bazaie euskaraz hitz egiten dute. Denboraren poderioz "hitz egizu euskaraz" esatea baino eraginkorragoa da.

Irakasleon lana gure informatika saioetan hizkuntz ekoizpena zaintzea da gure haurrak era egoki batean mintza daitezen.

Liburuak ere badaude informatikan janzteko, besteak beste "OINARRIZKO INFORMATIKA, WORD 6.0" ikasteko gida. "INFORMATIKA HIZTEGIA", adibidez, jadanik zaharra da baina beharrezkoa ikasi behar diren hitzak euskaraz zuzen erabili ditzagun. Zeren informatika alorrean beharrezkoak diren hizkuntz maileguak erabili beharko baititugu, baina zuzentasunez. Normala da oso maileguak erabiltzea, baina erdarakadarik egin gabe.

Horrez gain, Elhuyar hilabetekarian argitaratzen diren artikuluak eta Euskaldunon Egunkarian igandero argitzen den Luis Fernandez "Nabigatzen" oso egokiak dira informatikan alfabetatzeko eta geure hizkuntzaz ikasteko.

Programatzaileei dagokienez... badakit DELPHI edo antzekorik ez dagoela euskaraz; aitzitik, euskarazko CD ROMak gero eta gehiago dira. Dauden CD ROMak ezagutu eta batzuk gure ikasleen beharren arabera egokitu beharko ditugu.

Ibil gaitezen erne, "Software educativo" epigrafepean dauden gauza guztiak ez baitira eskolan erabiltzeko, etxean erabiltzeko baizik, eta jartzen dioten etiketa hori gurasoendako amua izaten baita.

### **Informatika, informazio automatikoa**

Informatika hitza INFORMazio eta autoMATIKA hitzen elkarketatik dator eta ez da kasualitatea. CD ROMak bereak egin duela diote askok, baina gaur egun eskura dugun informazio iturri izugarria CD ROM formatoan dugu eta gure eskolatan erabiltzeko modukoa.

Euskaraz ere gero eta CD ROM

gehiago ateratzen dira eta dagoeneko material mordoxka badago:

- Anaya argitaletxeak ipuin klasiko batzuk CD ROM berean eta lau hizkuntzatan atera ditu, bata euskara izanik.

- Euskara hutsezko hiztegiak: Aurtan Bai fundazioaren Europa (Planeta Agostini Entziklopediarekin batera ematen zutena), Elhuyarrena eta Ibon Sarasolarena.

- Hiru Mila gaztelera-euskara hiztegia.

- Entzikloik entziklopedia multimedia.

- Elhuyarren Munduko Atlas eta Euskal Herriko Fauna.

- Gipuzkoa CDa.

- Ikastolen Federazioaren Ikas Pilota I.

Laster aterako dira "Nafarroako eskaldunen mintzoak" eta Europako hizkuntz gutxiagotuen inguruko beste bat ere.

## **Egokipen amaigabea, bukatzen ez den soka**


Irakasleok ez dugu materiala soilik egokitu behar, geure burua ere bai. Irakasleonek ezaugarrietako bat egokipenerako gaitasun ikaragarria da...; bada, erabil dezagun informatikarako.

MS DOSekin hasi ziren horiek azkenik WINDOWSera pasa behar dute eta informatikaz ezer ere ez dakitenez WIN95 ikastea WINDOWS 3.x ikastea baino errazagoa dela onartu beharra dago.

Ateratzeaz dago WINDOWS 98 berria. Lehendabizi, ingelesez eta gero gaztelaniaz. Ondoren beste bat aterako dute WINDOWS 98aren gabeziak edota alderdi txarrak gaintu beharko lituzkeena.

Dena den, auto bat gidatzen dakienak beste auto bat gidatzen jakinen du. Hasieran egokitzea pixka bat kostatuko zaion arren...; bada, informatikarekin berdin.

Informatika munduan dauden berrikuntza azkar hauek ez gintuzkete harritu beharko. Edozein sistema eragile (sistema operativo delakoa) berez hobetu ahal izanen da, bestela BILL GATESi negozioa bukatuko litzaioke!



Auto modelo berriak hilabetero ateratzen dira, baina horrek ez du esan nahi azken bertsioa behar duzunik.

Seguraski, irakasle xume orok dituen beharrak izanen dituzu eta normala den ordenagailua nahikoa izanen duzu. Urte batzuk barru, kotxea bezala, aldatu egin beharko duzu, baina bitartean ordenagailuak duen potentzialitate izugarriari atarramendua atera.

## **Administrazioei formakuntza exijitu**

Aurreko guztiarekin lotuta eta tresneria berria maneatzen ikasteko behar

# **"Informatikaren zezenari adarretatik heldu behar zaio, zezen basati horrek harrapa ez gaitzan"**

rezkoak diren ikastaroak eta kurtsoak jaso beharko genituzke irakasleok, argi edukita irakaslearen formakuntzak progresiboa izan behar duela.

Ez da nahikoa ordenagailuak eskolara eramatearekin edo INTERNETERako atxikipena izatearekin. Euskarri egokiak izanda lan eraginkorragoa egiten da, baina ezartzen diren baliabide teknologiko berriei etekin handiena atera ahal izateko dagokien giza baliabideen egokipena bermatu behar da. Irakasleriak prestakuntza ikastaroak beharrezkoagoak ditu azken MMX 233 prozesadorea duen tramankulu hiper-azkarra baino.

Norbaitek pentsa dezake informatika ez duela "behar". Autoa ere ez dugu behar bizitzeko, baina gidatzen ikasi eta gero atarramendu handia ateratzen diogu egunero eta autoz leku anitzetara joan gaitzake. Ordenagailuarekin berdin. Ez dizut esaten mekanikari bihurtu behar duzunik, ez duzu programazioa ikasi behar nahi ez baduzu, baina gutxienez gidatzen, maneatzen ikasi beharko duzu, noizbait edo noiz-nahi... eta hobe berandu inoiz ez baino!

Azken finean, ordenagailuak kotxeak bezala tresnak dira eta ematen diogun erabilpenaren arabera onuragarriak izanen dira. Eta hori, irakasle zintzo hori, gure esku dago.

## Etxerakolanak: betiko eztabaida

**Eskoriatzako Irakasle Eskolako 2. mailako ikasleak Pello Aramendi Jauregi irakaslearen gidaritzapean.**

**E**txerakolanei buruzko gaia askotan ipini da mahai gainean. Europako zenbait naziotan, Suitzan esaterako, legeak etxerakolanak bidaltzera bultzatzen du. Alemaniako zenbait Länderretan, Danimarkan, Luxenburgon edo estatu espaniarrean ez dago politika argi bat gai honi buruz. Grezian, aldiz, lan mota hauek debekaturik daude.

Baina, etxerakolanek ikaslearen errendimendua hobetzen al dute? Ikasleriaren errendimendu akademiko hobetzeko etxerakolanen egokitasuna aztertu dute pedagogo. Horrela, T. A. Keith-en (1982) arabera "etxerakolanen denbora gehituz gero emaitza akademikoak hobetu egiten dira". H.J. Walberg-ek (1985) hauxe dio: "Etxerakolanak irakas-kuntza-ikaskuntza prozesuan eragin sendoa du".

R.A. Paschal-ek (1980) etxerakolanen eragina bi modurata handitzen dela dio: irakasleak aztertu, komentatu, zuzendu eta graduatzen baditu eta egunero egiten badira.

### **Gure lantxoa**

Eztabaidagarria den gaiari heldu diogu Eskoriatzako Irakasle Eskolako 2. mailako ikasleok. Didaktika klasetan aniztasunaren trataera aztergai genuen orain dela aste batzuk eta etxerakolanen gaia azaldu zen. Gure artean iritzi kontra-jariak zeudela ikusirik, Deba garaiko irakasleek, eguneroko errealitatea bizi duten praktikoek, gai honi buruz zer pentsatzen zuten aztertu nahi izan genuen. Horretarako, ikasle bakoitzak bi inkesta pasa genituen ikastetxe bakoitzean. Guztira Lehen Hezkuntzako eta Derri-gorrezko Bigarren Hezkuntzako 63 irakasleri egin genien aipatu galde-teria.

### **Hona hemen azaldu diren iritziak:**

#### **a) Etxerakolanen helburua eta zergatia:**

Inkesten erantzunetan, etxerako-

lanak bidaltzearen arrazoi aipagarrienak, irakaslearen iritziak, hauek izan dira:

-Lan ohiturak bultzatzea: ikaslearen lan autonomoa bultzatzea beharrezkoa ikusten dute irakasle hauek. Horrez gain, etxean ikasteko leku fisiko egoki bat edukitzea, ikasleak bere lanaren ordutegia planifikatzea eta antolatzea helburu garrantzitsutzat jotzen dituzte.

-Gurasoen inplikazioa: etxerakolanaren bitartez, ikaslea eta gurasoen arteko harremana eta lotura sendotzen dela adierazten dute irakasleek. Hau dela medio, gurasoen inplikazioa ikaslearen ikaskuntza prozesuan bultzatu egiten da, ikaslearen prozesua gainbegiratzuz, seme-alaba motibatuz eta lagunduz.

-Gelan ikasitakoa erreparatu: irakaslearen iritsiz, gelako denborarekin bakarrik, ikasleari ez dio arlo batetan sakontzeko ikasleak etxerako lan autonomoa beharrezkoa du.

-Lanaren indibidualizazioa: ikaslearen gaitasunak, lan erritmoa eta jarreraren ezberdintasunak errespetatu behar dira. Hau dela eta, ikasle bakoitzari, bere ezaugarrien arabera,

lana egokitu behar zaionez gero, askotan, gelako lanean hau lortzea zaila izaten da. Etxerakolanak, ikasleek beharrei erantzuteko estrategia egokia ikusten du irakasleriaren gehiengoak.

-Ikastetxearen irudia eta errendimendu maila: irakasleek iritiz, askotan, ikasleek maila akademiko altu bat lortzeko erabili ohi dira etxerakolanak. Haur jaiotzen kopuru txikiak eta, honen ondorioz matrikulak lortzeko ikastetxeen artean dauden lehiak eta konpetitibitateak direla eta, ikastetxearen irudi ona mantentzea beharrezkotzat ikusten da. Gaur egun ere, ikastetxeen irudi onaren oinarrietako bat bere ikasleriaren emaitza akademikoak dira.

**b) Etxerakolanen hasiera:**

- Irakasleriaren % 46,3a Lehen Hezkuntzako lehen zikloan (6-7 urte ) etxerakolanak bidaltzen hasten da.

- Irakasleriaren % 31,7a LHko bigarren zikloan (8-9 urte ).hasten da etxerakolanak bidaltzen.

Datu guztien bilketa taula honetan laburbiltzen da:

-Ez ditu bidaltzen:	%5
-6-7 urtetan:	%46,3
-8-9 urtetan:	%31,7
-10-11 urtetan:	%9,8
-12 urtetik gora:	%7,2

Inketa bete duten irakasleriaren gehiengoa (%78) 6-9 urte bitarte horretan hasten da etxerakolanak bidaltzen.

**d) Ikasleak etxerakolanak egiten pasatzen duen denbora:**

Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasle bat (11-12 urte ) erreferentzia gisa harturik, zenbat denbora lan egin behar duen galdetu zitzaien



irakasleei. Honako datuok jaso genituen:

-15 minutu:	%6,1
-30 minutu:	%34,6
-45 minutu:	%42,9
-60 minutu:	%16,4

Etxerakolanen maiztasunei dagokionez, irakasleek iritziak...

-Ez dut bidaltzen:	%5
-Behin edo bo aldiz:	%48,4
-Hiru edo lau aldiz:	%26,6
-Egunero:	%20

**e) Lanaren koordinaketa eta zuzenketa:**

- Tutoreen % 41,7a eta espezialisten % 48,5a etxerakolanak bidaltzerakoan ez dira koordinatzen (ikasleari lana ez pilatzeko).

- Irakasleek % 86ak gelako ikasle guztiei etxerakolan berdina bidaltzen die eta %14ak lan ezberdina, ikasle bakoitzari egokiturik.

- Etxerakolanak bidaltzen dituzten artean, ikasleak lanak egiten ez baditu, askotan zigorra edo neurri-

ren bat hartzen dutenen kopurua % 36a da. Zigorra gutxitan ipintzen dutenak, aldiz, %64 dira. Etxerakolanak egunero bidaltzen dutenak dira gehien zigortzen dutenak eta zigorra edo neurriak 5-6. mailatik gora maizago hartzen dira.

- Lan berdina bidaltzen dutenen artean % 100 etxerakolanak zuzentzen ditu. Ikasleek lan ezberdina bidaltzen dutenen artean % 85ak zuzentzen ditu lan horiek.

Datu bilketa izan da Eskoriatzako Irakasle Eskolako 2. mailako ikasleek egin duten lehen lana. Hemendik aurrera datuok aztertu eta eztabaiatu beharko dituzte, bai beraiek baina baita norberak ere bere ikastetxean.

**Bibliografia:**

- Keith, T.Z., Walberg, H.J, Paschal, R.A.: Gomez Dacal, G. (1992): "Rasgos del alumno, eficiencia docente y éxito escolar". La Muralla argitaletxea, Madril.
- Martín Moreno Cerrillo, Q. (1987): "Cuestiones sobre la organización del entorno de aprendizaje". UNED argitaletxea, Madril.
- OCDE ( 1991): "Escuelas y calidad de la enseñanza". Paidós, Bartzelona.
- Wilson, J.D. (1992) : "Cómo valorar la calidad de la enseñanza". Paidós

## Izarrak ikusten ikastetxean bertan

**K**osmos gela enpresa irundarrak urte bate du. Enpresa pribatu hau Samuel Hernandezek sortu zuen irakaskuntza arloan aurkitutako behar batzuei erantzuteko. Astronomian zaletua da eta urte asko daramatza bere kabuz, lagunekin edota Aranzadi Elkartean ikerketak egiten. "Gauzak ikusi, aztertu eta eztabaidatu egiten ditugu". Baina Samuelek zerbait gehiago egin nahi zuen eta "zeruko hezitzaile" izatea erabaki zuen.

Horretarako Kosmos Gela enpresa sortu zuen eta planetariuma hartuta Euskal Herria zeharkatzen dabil. Horrela topatu dugu guk eta planetariuma eta erakusketa ikustera gonbidatu gaitu.

Lau metro eta erdiko diametroa, 50 metro karratu eta barruan 40 pertsona. Horixe da planetariuma, airezko globo handi bat kanpotik begiratuta. Barrura sartzeko, berriz, ate moduko bat zeharkatu, eseri eta ilunpean Eguzki sistemari begira jartzeko aukera ematen du. Estitxuk diapositiba desberdinak erakusten dizkigu Eguzki sistemako planeta guztiak erakutsiz:

Merkurio, Artizarra, Lurra, Martitz, Jupiter, Saturno, Urano, Neptuno eta Pluton. Bakoitzaren itxura nolakoa den eta beste hainbat berezitasun eta bitxikeria kontatzen ditu. Adibidez, Artizarren 480 graduko tenperatura egoten da bertan. Jupiter eta Neptuno, berriz, oso azkar mugitzen direl dio Estitxuk. Lehenengoaren kasuan haizeak 500 km/h.ko abiadura hartzen du ekaitza dagoenean. "Mantxa gorri handia" izenez ezagutzen da. Amoniakozko euriz osatuta dago eta 400 urte irauten ditu.

Kontu hauek denak begiak zabalzabalik ditugula entzuten ditugu, benetan espazioan zehar gabiltzala irudikatuz.

Bidaia uste baino laburragoa egin zaitu eta kanpora atera orduko berriro ere argitan gaude. Baina ez kalera ateratzeko. Oraindik planetariumaren kanpoaldea dagoen erakusketa daukagu ikusgai.

Miren Beloki zain daukagu eta erakus-

ketako argazki desberdinak ikustearkin batera bakoitzaren ezaugarriak eta berezitasunak azaltzen dizkigu. Horrez gain, idatzita dauden azalpen laburrak ere irakur daitezke. Eguzki sistemako argazki berriak dira eta kalitate onekoak, Hubbel teleskopio espazialak ateratakoak. Nebulosak, izarren jaiotza, onden funtzionamendua, sateliteak,



Miren Beloki, Estitxu Rojas eta Kosmos Gelako arduraduna den Samuel Hernandez

meteoritoak eta beste hainbat gauza-  
ren inguruko informazio bildua eta  
antolatua dago.

### Bidaia honen xedea

Ez da eguneroko gauza gure herrian horrelako aukera izatea, planetarium mugikorra, alegia. Ohiko erakusketa eta planetariumak baino gehiago gustatu ohi zaigu, beste xarma bat du, beste erakargarritasun bat. Horretarako aukera eskaintzen du Kosmos Gelak bai ikastetxeetan eta baita herri mailan ere. Samuel Hernandezek azaldu digunaren arabera “Bi eremu horietan mugitzen gara. Alde batetik ikastetxeetan eta bestetik herri mailako ekintza eta jaialdietan”. Urtebeteko epean Euskal Herriko txoko desberdinak bisitatu dituzte: Bilbo, Kanpezu, Galdakao, Zornotza, Ormaiztegi, Urretxu, Arrasate, Eibar, Portugalete, Gasteiz, Audio, Hondarribia...

Ikastetxetara joaten direnean normalean ez dute erakusketa muntatzen. “50-60 pertsonarentzat izaten da eta kopuru horrentzat bakarrik ezin da muntatu erakusketa. Horregatik hau osagarri gisa erabiltzen dugu udalek edo beste erakunderen batek antolatutako ekintza zabalagoetan”.

Dena dela, guztiok ez gara gogo edo kuriositate berdinarekin joaten. Batzuk zaletuak gara eta beste batzuei, berriz, ez digu gauza handirik esaten.

Hori guztia nabaritzen dela dio Samuel Hernandez Kosmos Gelako arduradunak. Ikastetxeetako haurrak joaten direnean interes desberdinak daudela berehala nabaritzen dela dio. “Batzuek hasieratik interes handia erakusten dute. Beste batzuk, ordea, erdi behartuta etortzen dira, baina azkenean batzuetan horietan izaten dira galdere gehien egiten dituztenak”.

Orain arteko esperientziari buruz galdetu ostean pozik agertzen da Samuel eta keatzeko ziorik gabe. Irakasleen aldetik ez dute gure sistemen kalitateaz inolako kezarik eduki. 30-40 ikastetxetara joan dira orain



“Humanitatez asko hitz egin da, baina hori azken finean Historia da, iraganeko gauza bat. Hori bezain garrantzitsua da nora goazen, noruntz zuzentzen garen jakitea”

arte eta bi jaialditara ere bai. “Jaialdi hauetan 1.500 pertsona sartu ziren planetariumean 40ko taldetan. Baina azkenean 65 pertsonako taldeak ere egin behar izan genituen jendeak ordubete zeramalako sartzeko itxaroten”. Udalekuetan ere ibili dira egunez ibilaldiak eginez eta gauez izarrak ikustera ateraz. Guztira 7.000-7.500 pertsonak bisitatu dute, beraz, Kosmos Gelaren planetarium mugikorra bere lehen urte honetan.

### Astronomia eta Irakaskuntza

Gai honen inguruko ezagutza oraindik oso murrizta da, baina azken urteotan asko garatu da informatika bezalaxe. “Astronomiak interesa pizten du eta ikerketa eta frogak asko egiten dira. Askotan gure jatorria ezagutu nahian gauza berriekin egiten da topo eta interesgarria da. Horregatik, informazio hori zabaldu egin behar zela iruditzen zitzaidan eta asmo horrekin abiatu nintzen”. Profesionalizatu eta ikastetxeen errekurtsu gabeziari irtenbidea bilatu asmoz hasi zen. “Nik astebeteko ikastaroak ere eskain ditzaket, baina ez dute irakasle espezializaturik ekartzen gai edo arlo bakoitzeko. Horrela izan beharko luke, baina ez da hori gertatzen. Orduan, gelditzen den aukera planetariumaren bisita laburra da, baina oraingoz, bada zerbait”.



Horrekin batera liburuak, argazkiak, bideoa eta abar salgai dauzka Kosmos Gelak, baina aurrekontu murrizak dituztelako edo, ikastetxeek ez dute horrelako materialik erosten.

“Nire iritziz, instituzioen aldetik ez zaio behar duen garrantzia eman Astronomiari. Humanitatez asko hitz egin da, baina hori azken finean Historia da, iraganeko gauza bat. Hori bezain garrantzitsua da nora goazen, noruntz zuzentzen garen jakitea. Beharbada irakasleen prestakuntza ezagatik edo edukien zerrendan sartzen ez delako baztertu samarra dago Astronomia gaia”. Gaur egungo ikasleak “garai espazialean” biziko direla dio Samuelek eta ezagutza minimo batzuk eduki

## “Hezkuntza arloan ikasleak gai honekiko sentsibilizatzea dugu helburu”

beharko lituzketela. “Baina orain dagoen planteamendurekin ezagutza hori beraien kabuz eta kuriositateak bultzata aurkitu beharko dute”.

Irakaskuntzaren birmoldaketaren beharra argi ikusten du Samuelek. “Letrak garrantzitsuak izango dira, baina ez diot erabilgarritasunik ikusten “h” jartzeari edo ez jartzeari. Ordenadoreak berak egiten ditu zuzenketak, gainera gaur egun. Horregatik, erabilgarritasuna dute ikasgaiak eskaini beharko lirateke. Historiari gaur egungo teknologia eta aurrerakuntzei baino garrantzi handiago ematen diogu. Herrialde aurreratuenek, berriz, alderantzizkoa egiten dute, eta horiei jarraitu behar diegu. Hautazko gehiago ezarri beharko lirateke”.

Gaur egungo hezkuntzak ez du begiak irekitzeko balio Samuelen usteetan. Hau da, ikasleek ez dakite zer ikasi nahi duten edo zer izan nahi duten handitzean. Matematikak ez die ezer esaten, Historiak ere ez, Hizkuntzak ere ez... Ez dago informaziorik eta orientaziorik DBH bukatu ostean.

Honekin guztiarekin Samuel ondorio batera iristen da: Hezkuntza beste lurraldeetan baino 50 urte atzerago doala. Hemen autodidaktak dira ondo funtzionatzen dutenak, eta Astronomian ere bai.

“Haur asko oso interesatuak agertzen dira, baina berotan daudenean. Interes hori landu egin behar da ondoren, eta hor guk ezin dugu jarraitu”. Momentuz Kosmos Gelaren zeregina zabalpenekoa da, Astronomiari buruzko informazioa eta azken aurkikuntzen berri ematea. Hezkuntza arloan, berriz, ikasleak gai honekiko sentsibilizatzea dute helburu.



**Kontaktuak**  
**Kosmos Gela**  
 Anzaran plaza, 7.-1.D  
 20301 Irun  
 ☎ (943) 63 39 37

## GUTUNAK

Zuen kezka,  
iritziak,  
desadostasunak  
itxaropenak,...  
adierazteko  
lekua izan nahi  
du.



# Berriak

Bidal itzazu zure burutapenak irakasle  
euskaldunon aldizkarira

URTARRILA





## Errotxapeako Euskal Txokoaren borroka

Orain urtebete sortu zen Iru-eko Errotxapea auzoan Euskal Txokoa. Auzoan euskara bultzatzeko asmoz hasi zen eta gaur egun 80 haur biltzen dira Elkartean. Baina egia esan, biltzeko eta euren ekintzak aurrera eramateko arazoak dituzte lokal falta dela eta. Gabezia honi aurre egiteko udaletxera jo zuten Justarrotxa Kultur Etxeko gela bat eskatuz. Nahiz eta udalak ezezkorik ez eman, Justarrotxako gestio taldeak ezezko borobila eman dio. Beste edozein talde eta elkarte bezala auzokoa eta auzokoentzako da Euskal Txokoa ere, baina ez du tratu bera jasotzen. Lanerako gogorik ez zaie falta eta lokala lortu arte aurrera jarraituko dute.

## Hiesari eta sexu heziketari buruzko eskola programak

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikastetxe askotan 16 eta 17 urte bitarteko neska-mutilen artean hiesa, sexualitatea eta prebentzioa oinarri dituzten eskola programak ari dira aurrera eramaten. 1989/90 ikasturtean hasi ziren eta orain arteko esperientzia positiboa izan da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Osasun saileko arduradunen hitzetan.

Hemendik aurrera programa horrekin jarraitzeko asmoa dute eta baita ikastetxe gehigotara zabaltzea ere. Ikasturte honetan Irungo Txingudi institutuan, Gasteizko Mendebaldean eta Zornotzako Urritxan jarri dute martxan. 12 eta 16 urte bitarteko nes-

ka-mutilei sexualitateari buruzko programak eskainiko zaizkie. Gizakien izaera sexuala, ernalkuntza, haurdunaldia eta erditzea, kontrazepzioa, afektibitatea eta beste hainbat arlo landu ondoren sexualitatea eta prebentzioari buruzko gaiak jorratuko dituzte.

Ikasleei ezezik, irakasleei ere eskainiko zaie prestakuntza ikastaroa. Sexu heziketarako ikasmateriala ere osatuz joanen dira aurrerantzean argitaratzeko. Momentuz 12 eta 16 urteko ikasleei zuzendutako programa bada ere, Eusko Jaurlaritzaren asmoa Haur eta Lehen Hezkuntzara ere zabaltzea da.

## Ikasketak ordenadorean



Euskara ikasteko ez dugu euskategira joan beharrik derrigorrez hemendi aurrera. "Bai, noski!" ordenadore programaren bidez ikas dezakegu. Euskara ikasteko sistema adiatu multimedia bat kaleratu da. CD-ROM multimedia honek 25-30 bat ordu ikasteko material didaktikoa biltzen du.

Batez ere seme-alabak B edo D eruedetan dauzkaten, ikasi nahibaina euskategira joaterik ez dutenei edota aspaldian hasi eta berriro ikasten hai nahi dutenei zuzendua dago. Programa ikasle bakoitzaren ezaugarrietara egokitzen da. Horrekin batera,

# Argitalpenak



## Kantutik jolasera

UEU  
Musika saila

Kantutik jolasera izeneko liburua eta kaseta/konpaktoa argitaratu berri ditu Udako Euskal Unibertsitateak. Musika saileko kideek egindako lan honetan kantu desberdinak jasotzen dira. Liburua sail desberdinetan banatua dago. Kantu bakoitza prozesu metodologiko-didaktiko ireki bati begira landuta dago eta kaseta eta konpaktoa lan horren osagarri dira. Haurreei zein irakasleei zuzenduriko materiala da.



## Ibiltzen aldizkaria

16.  
zenbakia  
1997.eko  
udazkena  
**BIGE**

Bizkaiko Guraso Elkar-teak Ibiltzen aldizkariaren 16. zenbakia kaleratu berri du. "Kalitatezko Hezkuntzaren bidean" izenburupean gai alor desberdinak ukitzen ditu. Pello Ellakuria Pujana, Euskadiko Eskola Kontseiluko lehendakariari egindako elkarrizketa bat ere agertzen da. Berrikuntza gisa, Bizkaiko zirkunskripzio desberdinetako egoerari buruzko lanak argitaratzen hasi direla aipatu behar da. Zenbaki honetan Enkanterriak eta Eskuineko Ibarreko egoeraren berri jaso dute egileek.



## Garapena armonian

Salbatore  
Mitxelena  
ikastola  
1997ko  
abendua  
1. zenbakia

Zarauzko  
Salbatore

Mitxelenak aldizkari berria argitaratzu eman dio amaiera urteari. Orain arte aldizkari gehiago kaleratu izan badi-

tuzte ere, formatu eta diseinu berriarekin argitaratu dute hau. Gai nagusiari "Garapena armonian" izenburua eman diote eta 2 urteko gelak aztertu dituzte. Horrez gain, 97-98 ikasturteko plangintza, berriak, erronkak, kirola, elkarrizketa, antzerkia eta beste hainbat atal ditu aldizkariak.



## Basajauna

Seve Calleja  
Aizkorri  
argitaletxea  
250. or.

"Basajauna eta beste euskal ipuin eta legenda

batzuk" da Seve Callejaren liburuaren izenburu osoa. Euskal ipuin eta legenda hautaketa bat egin du. Hauen irakurketak gure herriko nekazarien, arrantzaleen eta artisauen bizimodu tradizionalen barneratzen gaitu. Mendi, haran eta itsasertzera hurbiltzen gaitu bere hizkuntzaren aberastasunez.

## Mendi sorgindua bilduma

### Aizkorri argitaletxea



Aizkorri argitaletxeak "Mendi sorgindua" bilduma kaleratu du 8 urtetik gorako haurrentzat. Oraingoz sei liburu argitaratu ditu: "Mundua pintatu zuen haurra", "Haize txikiaren bidaia", "Samovar", "Iratxoak", "Sadako eta paperezko mila kurriloak", eta "Paperezko

gizontxoak". Egileak Javier del Amo, Concha López Narváz eta Carmelo Salmerón, Maximo Gorki, Juan Farias, Eleanor Coerr eta Fernando Alonso dira hurrenez hurren. Pertsonaia desberdinen istorio eta abentura dibertigarriak kontatzen dira guztietan ere.

## “Har ezazu zuhaitz bat”

Gasteizen hasi berri den kanpainaren leloa “Har ezazu zuhaitz bat eta hazi berarekin” da. Ingurugiro Ikerketa Zentruak antolatu du. Ikasleei eta oro har hiritar guztiei zuzendurik dago. Gasteizko udaletxeko plazara hurbildu diren guztiek erkametz bat eskuratzeko aukera izan du. Erkametzta pago mota bat da, neurri ertainekoa eta 20 metrotako altuera izatera irits daitekeena.

Kanpainako lehen ekintza erkametzta hartzea izan da. Otsaila arte norberak etxean zaindu beharko du zuhaitza. Ondoren, otsailean Armentia basoan zehar landatuko dira. Udaberria iristean partehartzaile guztiak zuhaitzak ongarritu, ureztatu, garbitu eta zaintzera joan ahal izango dira Armentia aldera. Kanpainaren amaieran guztiek diploma eta opari bana jasoko dute kanpainaren oroigarri bat izateko. Baina benetan garrantzitsuena ez da hori, parte hartzearekin batera gure ingurugiroaren

## Gabonak, jostailuak eta publizitatea



Estatu espainiarreko ekoizleak haur publizitatearen kodigo deontologiko baten pean daude 1993. urteaz geroztik. Euren borondatez ezarri zuten aipatu kodigo kontsumitzaileen elkarteekin eta telebista ikus-entzuleekin batera. Araua jartzeaz gain jarraipen talde bat ere sortu zen. Urtero egiten ditu neurketak eta urtez-urte gauzak hobetuz doaz. Iaz 32 ekoizleek egindako 205 jostailu desberdinen 962 iragarki aztertu zituen. Guztietatik bostek soilik agertu

zuten akatsen bat: mugikortasun irudikatua, pertsonaia ezagunen partehartzea edota konnotazio sexistak. Arazo hauek epe laburrean konpondu ziren.

Dena dela, enpresa inportatzaileen jostailuak ere iristen dira eta hauek ez daude kodigo deontologiko horri atxekiturik. Hori dela eta, hauen publizitatea iruzurtia izan liteke. Horregatik, ehun iragarkitrik bik engainura eraman gaitzake.

## Olentzero ikatza banatuz



Ez dakigu zuei zer ekarri dizuen Olentzerok, baina batzuk ikatza jaso dutela badakigu, bai. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Kontseilari den Javier Markotegi da horietako bat. Olentzerok, Berako ikastolakoek lagunduta ikatza eman diote aurten oso gaizki portatu delako Labiaga

ikastolari DBH lerroaren legeztatpena ukatuz.

Antonio Perez Prados, NUPeko errektoreak ere beste hainbeste jaso du. Hizkuntz Normalizaziorako Plana onartu gabe utzi du eta horregatik jaso du ikatza Olentzerorengandik.

## Norvegia: eskola publikoen ugaritasuna

**N**eguan berotasun bila ibili ohi gara, baina gu baino hotz gehiago pasatzen dutenei begira jarrita, beharbada berotu egingo gara. Norvegiako ikasleak ondo prestatuta irteten dira etxetik eskolara joateko. Eta... eskolatik etxera? Itzulerako bidaia horretan barneratuta eramaten duten informazioa eta jakituria ezagutzera goaz.

Eskolarako bidea 6 urtekin hasten dute Norvegiako haurrek eta derrigorrezko hezkuntza 9 urte luzatzen da. Adin honen aurretik gaur egun haurren %90ak borondatezko eskolaurrera joateko aukera du, bai eskolan eta baita haurrak zaintzeko instituzioetan ere.

Ezgaitasunak dituzten haurrak ere ahal den azkarren integratzen dira klasetan. Hala ere, larritasun eta zailtasun handiak dituztenentzat herrian edo ikastetxean bertan eskaintzen diete behar dutena zentro nazionalak.

Derrigorrezko Hezkuntza Lehen Hezkuntzak eta Bigarren Hezkuntzako lehen zikloak osatzen dute. Lehen Hezkuntza 1-6 graduek osatzen dute eta 7-13 adinen artean garatzen da. Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa, berriz, 7-9 graduek eta 13-16 urte bitarteko ikasleek osatzen dute.

Derrigorrezko Hezkuntza oso zabala da. Helburua ikasleei beraien gaitasunei egokitutako hezkuntza eskaintzea da. Klase bakoitza haur guztien artean eramaten da aurrera unitate heterogeneo bat bailitza lehen gradutik seigarrenera arte gutxienez. 8. eta 9. graduetan ikasleek hautazko gaiak aukera ditzakete derrigorrezkoekin batera, baina klase unitateak aldatetarik gabe jarraitzen du hautazko kurtsoetan izan ezik. Graduen errepikapenik ez dago.

### Bigarren Hezkuntza 94ko Erreformaren ondoren

1994ko Erreformaren ondoren aldaketa handiak egin ziren Bigarren Hezkuntzan. 16 eta 19 urte bitarteko gazte guztiei Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan hiru urteko ikasketak egiteko aukera legala (ez derrigorrezkoa) eskaintzen die, eta ezgaitasunak dituztenei bost urtekoak. Lurralde agintariak plaza kopuru nahikoa eskaini behar dute eskubide hau bermatu ahal izateko. Ikasketa hauekin goi mailako ikasketak egiteko edota lan munduan murgiltzeko prestatzen dira gazteak.

Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloko lehen kurtsoan 13 oinarrizko kurtso daude aukeran. Hezkuntza aldetik begiratuta eduki orokorra daukate eta hurrengo urteetakoak hasten dira espezializatzen.

Lanbide Heziketan lehenengo bi urteak eskolan igarotzen dira lanbide ikasketak eginez, eta azken urtean enpresan egiten dira ikasketak edota praktikak. Dena dela, enpresan bi urte ere ibil daiteke bertako langile bezala lan eginez kontratu eta guzti. Kasu berezietan lanbide ikasketa guztiak enpresan egin daitezke. Horrelakoetan enpresari dirulaguntzak luzatzen zaizkio formakuntza kostua ordaintzeko.

Azken urteetan gazteen %95ak 16 urte bete ondoren ikasten jarraitu du. Hauekin batera, jende helduaren matrikulazio kopuruak ere gora egin du. Beraien formakuntza osatu nahi dutenak asko dira. Ondorioz, Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleek %25a 20 urte baino gehiago duena da.

### Goi mailako ikasketak

Goi mailako ikasketa guztiek gaitasun maila bera eskatzen dute, eta eskatzen den gutxienekoa hau da:

- Bigarren Hezkuntzako bigarren

zikloko ikasketak bukatuta edukitzea, hau da, oinarrizko kurtsoa eta ondorengo biak, gainditutako notekin, lanbide ziurtagiriarekin edo ziurtagiri ofizialarekin.

- Ezagutza maila espezifikoak honoko ikasgaietan: norvegiera, ingelesa, Gizarte Zientziak, Matematika eta Natur Zientziak.

Norvegian lau unibertsitate eta unibertsitate mailako sei ikastetxe daude. Lau eta zazpi urte bitarteko iraupena duten ikasketak eskaintzen dituzte eta maila desberdinetako tituluak.

1994. urtean 98 ikastetxe publiko zeuden eta 26 ikastetxetan antolatu ziren. Helburua goi mailako zentroak "Norvegiako sarea"n sartzea zen lankidetzaren eta elkarren arteko komunikazioa gehitzeko. Zentro hauek urtebete eta hiru urte bitarteko kurtsoak eskaintzen dituzte, eta zenbaitetan iraupen luzeagoak ere sartu dira.

Unibertsitateko eta goi mailako ikasketak eskaintzen dituzten zentroetako tituluak desberdinak izan daitezke. Tituluak, azterketak eta ikasketen iraupena gobernua erabakitzen ditu. Era berean, azterketetan sartzen den edukiari buruzko erabakiak Ministeritzak hartzen ditu.

Programa gehienak lanbide zehatzetara zuzenduta daude eta zenbait ikasketatan pertsona profesionalaren titulua lortzen da. Adibidez, eskolaurreko irakaskuntzan, injinerutzan, lan sozialean, ekonomian, elektronika lanetan, kazetaritzan eta abar.

### Helduentzako ikasketak

Helduen ikasketak agintarien eta helduentzako ikasketetarako elkarrean esku daude eta elkarte ez gubernamentalen laguntzarekin sortu dituzte. Estatuak subentzionatzen du helduentzako irakaskuntza Helduentzako Ikasketen Legearen arabera.

Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako lehen zikloak herri mailan eskaintzen dira. Bigarren zikloaz, berriz, konderria arduratzen da. Dena dela, helduentzako ikasketen elkarteak eta urrutirako ikasketen instituzioak ere bigarren zikloa eskaintzen dute, eta baita goi mailako ikasketak eta instituzio publikoek eskaintzen ez dituzten kurtsoak ere.

Goi mailako eskola herrikoiak dei-


turikoak ere badaude. Hauek urte erdiko edo urtebeteko kurtsoak eskaintzen dituzte gazte eta helduentzat. Batez ere 17-22 urte bitartekoak joan ohi dira. Dena dela, lortzen den titulazioa ez da formala izaten.

### Ikastetxe pribatu gutxi

Leku askotan ez bezala, Norvegian ikastetxe pribatu gutxi dago. Estatuen Eskola Pribatuen Dirulaguntzen

Legearen arabera gobernuak dirulaguntzak jasotzeko baldintzak ezarri zituen. Honekin eskola publikoak bultzatzea lortu du 1995. urteaz geroztik. Gaur egun, Derrigorrezko ikasketak egiten ari den ikasle kopuruaren %98a gutxi gora-behera, eta Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan dauden %96a ikastetxe publikoetara joaten da. Eskola publikoak duen indarra nabaria da portzentaia hauen arabera.

## Norvegiako Hezkuntza Sistema



## Mural kromatikoa: (I)

kolorearen aurkikuntzako haurren abenturan lagungarria eta motibagarria den tresna

### Imanol Agirre Arriaga

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Irakaslea  
Psikologia eta Pedagogia Departamentua



**L**an hau heziketa prozesuko lehen mailetan kolorearen aprendizaiaren laguntza estimagaitzagera daitekeen tresna bati dagokio. Mural kromatikoak, aktibitate bat baino gehiago, esperientzia plastikoan hain oinarritzakoa den elementuarekiko, hots, kolorearekiko, ikaslearen sentiberatasunerako tresna eraginkorria izan nahi du.

Funtsean fitxa aldakor eta trukagarri osatutako mural bat da; fitxa bakoitzak, adin bakoitzerako egokiaz den eran, koloreen nahasketa eta lor-

penaren haur-esperientziak jasotzen ditu. Mural hau beti gelan egongo litzateke, ikasleriaren aurrerapen eta beharren arabera bere egitura etengabe aldatuz. Bere erabilgarritasuna era askotakoa da, bai kolorearen lorpenari buruzko kontsulta tresna bezala, baita ikasleek arlo artistikoko beste edozein jardueratan erdietsitako lorpenen aplikazioan laguntza tresna bezala ere.

Tresna honen nahitaezko betekizuna koloreari dagozkion edukien sistematizazioan laguntzea litzateke, adin goiztiarrenetatik arlo honetan aprendizai esanguratsua bultzatuz eta esperimentala bezain ludikoa den metodologia erabiliz.

Ikusmen oharmenaren eremuan Gestalt-ek burututako ikerketek frogatu duten bezala, koloreak atxikitze eta ñabarduren artean bereizketak

egiteko dugun gaitasuna oso mugatua da. Hobeto prestatuta gaude formaren arabera bereizteko, kolorearen arabera baino. Arnheim-ek (1.974: 368) dioen bezala, forma "kolorea baino identifikazio eta orientabide modu ziurragoa da, bereizketa kromatikoa oinarritzko primarioetara murriztu ezean". Kolorearenganako sentiberatasun berezia landu den kasuetan soilik, margolariekin bezala, bereizketa kromatikorako gaitasun pertzeptiboa gainontzeko jendearengan baino zerbait gehiago garatu da. Arnheim-ek berak azaltzen duen bezala, ez da ez garelai hori hurbil dauden kolore ñabardurak ezberdintzeko, baizik eta ez garelai hori egiteko gai baldintza pertzeptiboak egokiak ez direnean. Eraginkortasunarekin bereizteko gaitasuna agertzen dugu bakarrik koloreak, konparaketa objektuak dire-



nak, elkarren ondoan edo aldi berean ikusiak badira edo konparatzen diren nabardurak eskala kromatikoan elkarrengandik nahikoa urrun badaude.

Zaila da moldagaiztasun hau zein neurritan mugaketa biologiko baten emaitza den edo soilik ohitura kultural batzuen ondorioa den zehaztea. Baina begi bistan dagoena zera da: gure artean kolorearekiko gaitzuntasun ez dela formarekiko gaitzuntasunaren neurri berean lantzen eta ikastetxeak baduela zerikusia praktika kultural honetan.

Honi dagokionean deigarria da haurren esperientzia kromatikoak gutxienezkora murrizteko helduek duten tema. Helduok haurren munduarekin lotzen dugu guztia kolorearen kontzeptzio aski "formalista" batez kutsatua dirudi. Beraien ipuinen ilustrazioak, gelen apainketak, beraien jostailuen koloreak horren adibide egokiak dira. Helduok kolore estereotipatuaren mundua

programatu dugu, "haurren neurria" diseinatu eta guztiz nabardurarik gabeko kolore primarioen erabilerarekin konpondua. Baina nork zehaztu du gaitzuntasun haurren sentikortasuna noraino iritsi daitekeen? Zer dela eta heziketako beste esparru batzuetan haurren sentikortasuna eta adimena gutxitzen duen praxia uzteko prest bagaude, esperientzia kromatikoari dagokion eremuan haurrei berezkoa zaien eta bizitasun eta sinpletasun kromatikoak ezagugarritzen duen koloreen mundu bat dagoela pentsatzen jarraitzen dugu? Zein da hezkuntza sistemen betebeharra egoera honen eraldakuntzan?

Azken hamarkada honetan gehiegi polarizatutako kolorearen didaktika erabili da, alde batetik bere balio hezitzailearen ikuspegi eta moralari dagokiona hezkuntza prozesuko lehen mailatan, eta bestetik tekniko edo

tual maila bat lortu arte ezin zela koloreari buruzko edukien aprendizaiak sistematizatu sartu.


Ikuspuntu honetatik, lehen etapetako irakasleak egin zezakeen hoberena haurren garapen naturalizat jotzen zenean ez tartekatzea zen, edo gehienez ere haurren sentikortasun kromatikoak oztoporik gabe azaleratzeko egoerak sortzea. Haurrek dohain natural batzuk zituela suposatzen zen, zeinak bere garapen orokorraren zikloen parean garatzen ziren. Honela norabide batean edo bestean eskusartzeak bere sormenaren berezko bilakaera desegokitzea suposatuko luke.

Sormenari buruzko kontzeptzio ia determinista honen alderdirik larriena honako hau da: haurrek kolorearen ezagutza eta erabilerara era intuitibo batez iritsi behar zirela goratzen zen bitartean, irakaskuntza planifikatu baten ezak esperientzia kromatikoko erabilera eskasgarriek lekua uzten ari zirela, bai ikastetxe barruan bai kanpoan.

Arazo honen konponbide bat, ia tradizionala, esperientzia plastikoko materialak banantzea eta ikaslearen lanak ilustratzen dituen kolorearen paleta nabarmenki zabaltzea izan da. Bera izan dadila gehien atsegin zaizkion koloreak aukeratzen dituen eta alde aurreko mugapenik gabe aukeraketa egiteko parada izan dezala!

Haatik, neurri hauekin ere, koloreari buruzko ezagueren lorpena neurri handi batean intuizio "librearen" menpe dago oraindik. Irakaskuntza sistematizazio bat planteatzen badugu edo Hezkuntza Artistikoaren eremuan aprendizaiak eredu eraikitzaile eta esanguratsu batera jotzen badugu, baita adin goiztiarretan ere, kolorearen munduarekin era solido eta esanguratsu batean harremanetan jartzeko

modua ezarri beharko genuke, sentikortasunaren eraikuntza eraginkorrerako eta esperientzia plastikoa hain garrantzitsua den elementu honen ezagutzarako beharrezkoak diren oinarri



## 1. irudia

akademikoa erdi eta goi hezkuntzan. Tradizionalki pentsatu izan ohi da haurra sentiberatasun kromatikoaren mundura era intuitibo batez iristen zela eta haurrek heldutasun intelek-

esperimentalak jarritz.

Dударik gabe esperientzia kromatiko-ko aberasteak, haurren adierazpen baliabideen hedapena eta gehikuntza dakar, baita ere mundua estetikoki sentitzeko gaitasunaren aberastasuna. Baina ez da bakarrik ikaslea ikusle bezala jartzea, unibertso kromatiko aberats baten behaketaren aurrean aukera egin dezan. Hau beti desiragarria bada ere, oinarritzkoak dira baita ere hausnartutako plangintza curricular baten arabera burututako esperientziazio zuzena, kolorearen manipulazioa eta esperientziazio kromatikoaren erabilpen aplikatua.

Lowenfeld-ek (1947) dioen bezala adin hauetan koloreak misterio asko barneratzen ditu, bere esperientzia gatibagarria da. Horregatik ona da ikaslea bere esperientziazioaren jokoa- ren bidez bere begien aurrean behin baino gehiagotan esanguratsuki hautesman ezinez eduki dituen -abardurak aurkitzen dituen izatea, baina hobea da era sistematiko eta ordenatu batean egitea eta bera inguratzen duen munduaren balore kromatiko eta argitsuen aurrean sentsibilizatzeko gai izatea, hauek bere bizi-esperientzian barneratuz.

## Muralaren deskribapena. Zer da?

- Murala horman zintzilikatutako ohol bat izan daiteke, non "sortutako" kolore guztiak ordenatuta bildu eta erregistratzen diren. (1. irudia).

- Postal baten neurriko edo txiki- goko kartulina gogorreko fitxaz osatzen da. Hauek kontsultarako edo fisika, sentimendu edo kolorearen esanahiari buruzko edozein jarduerarako askatu ahal izateko moduan es- kiko dira muralan.

Fitxen mugikortasunak gainera muralaren aldizkako berrordenamen- duan edo hurbiltasunaren arabera koloreak parekatzen lagunduko ditu.

- Kartulina bakoitza hiru zatiz osa- turik dago (2. irudia):

+ Goiko aldean lortutako kolorearen izena agertzen da.

+ Erdialdea (zatirik zabalena) ikasle- ak nahasketen esperientziazioan lortu- tako kolorearekin margotua egongo da.


+ Beheko aldean era grafikoan (adi- naren arabera aukerak ikusi) fitxan agertzen den kolorearen formula edo aginduak agertuko dira.

## Nori zuzenduta dago?

Muralaren esperientzia Lehen eta Bigarren Hezkuntzako edozein maila- tan egin daiteke, denetan ondorio era- ginkorrak lortuz. Haur Hezkuntzaren amaieran ere ondorio bikainekin espe- rimentatu da. Dударik gabe, hezkun- tza ziklo bakoitzean muralaren erabil- penaren adinari dagozkion baldintza eta helburuei egokitu beharko litzaieke.

Honela, Haur Hezkuntzako azken mailan koloreen nahasketaren zio eta sarrerarako balioko luke, baina ikasle- ek ñabardura jakin bat lortzeko gida bezala erabiltzeko eskatzea gehiegiz- koa izango litzateke. Etapa honetan muralak izaera orokor bat edukiko luke eta koloreen izenei buruz hitz egiteko, argitasun etea iluntasun balo- re berriak aurkitzeko edo ñabardura berrien ezaguera kontzientea indartze- ko tresna egokia izango litzateke.

Lehen Hezkuntzan, lehen aipatuta- ko alderdian sakontzeaz gain, hau- rrak murala -abardura jakin bat iden- tifikatzeko erabili ahal izatea eta laguntzen dion formula errepikatze- ren prozesua jarraituz hori lortzeko gai izatea espero da. Momentu egokia da ikaslea muralaren bidez kolorearen



2. irudia





mekanikara hurbiltzeko eta baita ere, etaparen amaieran, nahasketa egin aurretik osagarri berri bat sartzeak eduki dezakeen ondorioa intuitzeko gai izateko.

Bigarren Hezkuntzan muraletik abiatuz kolorearen mailaketari, elkarrekintza kromatikoari eta abarrei dagozkien lehen ariketak planteatu daitezke. Hau dela eta etapa honetan fitxa txikiagoekin osatutako mural ezberdinak (bat oinarrizko kolore bakoitzarentzat) edukitzea komenigarriagoa izango litzateke, zeren eta orokor batek neurtzeko tresna zehatzagoekin adin honetan lor daitezkeen abardurak dokumentatzeko aukerak gehiegi mugatuko bailituzke.

Dena den, nahiz eta noizean behin beste etapa batzuetan muralaren erabilerari buruzko aipamenen bat egin,

(1) Kasu batzuetan, murala kokatzeko tokirik gabe aurkitu garenean, fitxak lekutzeko DIN A-1 formatuko kartulinak erabili dira. Kartulina hauek banan-banan ikusi ahal izateko moduan aurkezten dira (laminak aurkezteko erabiltzen den sistema berberean).

bere fabrikazioaren deskribapena eta erabilera errazteko Lehen Hezkuntzako lehen ziklorako pentsatutako jarduera batez arituko naiz orokorrean.

## Muralaren fabrikazioa

Hormako euskarriak, taulan edo antzekoan eta dagozkion gakoekin, aparte eta alde aurretik egina egon beharko du, ikasleek prestatutako kartulinazko fitxak jasotzeko prest. Mozututako ete zulatutako kartulinak ere alde aurretik prestatuak egon daitezke (adibidez moztetari eskainitako saio batean lortutakoak izan daitezke). Hau dela eta, lehen egin beharreko jarduera kartulina (1) horiek gure nahasketekin koloreztatzea izango da.

## Fitxen prestaketa

Atal honetan gure mural kromatiko osatzen duten kartulinazko fitxak nola prestatzen diren deskribatzen da, baina ez da ia baloratzeko moduko metodologia erako gogoramenik edo jardubide deskribaketarik egingo, mailaren eta helburu didaktikoen arabera ariketen planteamenduan aldakuntzak sartzeko aukera oso handia delako.

Funtsean, muralarekin lehen jarduera ikasle bakoitzari, oinarrizko koloreetatik abiatuz adibidez, proportzio jakin baten arabera nahasketa simple bat egitea proposatzean datza. Horregatik, fitxen prestaketa indibidualerako ondoko material hauek eduki beharko ditugu:

1) Aldi bakoitzean hartzen den pintura kantitatea neurtzeko tresnaren bat. Neurtzeko tresnek ez daukate sofistikuak izan beharrik. Adibidez, orratzik gabeko xiringak, sendagaiak ekartzen dituzten goilaratxo edo goilara graduatuak eta abar izan daitezke. Lehen kursoetan batez ere emaitza oso zehatzak lortzea baino garrantzitsua da prozeduraz jabetzea, betiere desabideraketak prozedura eta gauzatzearen fidagarritasunari buruzko nahasterik sortzen ez badu.

Kolore gorriko bi xiringa eta urdineko bat, gorriko bi xiringa erdiren eta urdineko erdiaren baliokideak direla ulertzeko oraindik zailtasunak egon daitezkeenean, beti neurri unita-

te bete eta berdinekin lan egingo dugu.

2) Postalaren neurriko katulinak edo txikiagoak, adinaren arabera.

3) Oinarrizko kolore bakoitzetik (horia, cyan, magenta) eta akromatikoetatik (zuria eta beltza) gutxienez pintura pota bana. Erabiltzen den materialaren arabera magenta edo cyan-a aurkitzeko zailtasunak edukiz gero, ez dut uste beraien ordeztaragoak diren gorria edo urdina erabiltzea eragozpen handia denik. Azken finean, lehen esan dudana bezala, muralarekin hasieran egindako jardueretan garrantzitsuena muralaren funtzionamenduen mekanika ulertzea eta bereganatzea da, eta ez hainbeste kolore jakin bat lortzea.

Paperaren gainean nahasketaren fenomeno behatzeko pinturarik egokiena, bere gardentasuna dela eta, akuarelak edo tintak lirateke. Baina 5, 6 edo 7 urteko ikasleei pigmentu hauen erabilpenak zailtasun bat gehitzen diela kontuan hartuz gero, pintura lotin eta maneiagarriago batekin hastea, adibidez tenpera likiduarekin, eta nahasketa ontzi batean egitea komeniko litzateke. Kasu honetan eta edozein arazo ekiditeko, irakasleak prestakizunaren lotindura egokia izaterari kasu egin beharko dio. Sobera likidua den pintura bat xiringaz ondo jasoko litzateke, baina kartulina gehiegi blaituko luke. Bien bitartean pintura krematsuago batek xiringaz neurtua izateko arazoak aurkez ditzake, proportzioen zehaztasunak kontrolatzea zailduta.

4) Nahasketak egiteko jogurt pote batzuk, arrautza kaxak, plastikozko edalontzi edo platerak.

5) Pintzelak, ontziak urarekin eta garbiketarako zapi edo paperak.

Mural kromatikoak, aktibitate bat baino gehiago, esperientzia plastikoan hain oinarrizkoa den elementuarekiko, hots, kolorearekiko, ikaslearen sentiberatasunerako tresna eraginkorra izan nahi du.